


61

500 pezeta / 20 libera • 2001eko URRIA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: MIXEL ETXEBE-
RRI • JOXERRA GARZIA •
ZUMETA ESPERIENTZIA •
EUSKAL ESKOLA



GAIA

Gure ikasliburuak


Geuretik abiatuta



gaia

IKASLIBURUAK

Nafarroan ikasmaterialen inguruko afera dela-eta, hainbat iritzi biltzen dira. Honez gain, Lore Erriondok euskal curriculumean oinarritutako ikasmaterialen inguruko hausnarketa egiten laguntzen digu.



elkarrizketa

MIXEL ETXEBERRI

Seaskako lehendakariarekin solasean Seaska eta Frantziako Hezkuntza Ministeritzaren arteko negoziaketaz

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

GURE IKASLIBURUAK geuretik abiatuta

Lore Erriondo, Lola Valverde, Aingeru Epaltza, Rikardo Ederra, Ernesto Delás, Miren Zabaleta, Txantxon Zubeldia, Jon San Sebastian eta Jorge Gimenez.

22 elkarrizketa

MIXEL ETXEBERRI

28 II. hik hasi Topaketa
Pedagogikoak

30. Motiboezagupenaren
zioak. Joxerra Garzia

38 esperientzia

Zumeta proiektua

Igeldoko herri eskola

41 berriak

45 argitalpenak

Hezkuntza zentroen zuzendaritza, Zure etxea, zure planeta; Euskara, Arrazismoa nire alabari azaldua, Musu lapurra, eta Harry Potter eta sekretuen ganbera.


46 euskal eskola

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORTA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: hikhasi@antza.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airnha Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Uibe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Graf ik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Reggio Children. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/X/1. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Euskaraz jolasten

ikastaroak

Norentzat. Hurrekin erlazio zuzena duen edonorentzat egokia: irakasle, guraso, begirale eta abarrentzat.

Jolas motak. Zotz egitekoak, txalotakoak, soka saltokoak, gometakoak, dantzak, harrapaketetakoak, korroan aritzekoak, taldeetan aritzekoak...



Iraupena. 12 ordu. Orduka ere bai.

Prezioa. 8.000 pezeta orduko
+ 31 pezeta kilometroko
+ Autopista ordainsaria

Harremanetarako: 943 45 73 94 Leire
943 36 14 76 Harkaitz



editoriala

urria

Itziar Barriola, Iparraldetik argi egin diguzu: mila esker



Itziar Barriola, ezkerreka

hik hasiko erre-
dakzio taldeko par-
taideak lan eskerga
egin du Seaskan,
Ikastolen mugimen-
duan eta Hego Eus-
kal Herriarekiko lo-
turak estutze aldera

Uztailaren 16an, ikasturtearen azken orrialdea pasa eta liburua ixtera gindoazela jaso genuen berria. Itziar Barriola, Donibane Lohizuneko ikastolako irakasleak eta etxe honetako sustatzailetako batek, besteak beste, betirako utzi gintuen. Isilik eta apal joan zen, bere bizitza izan zen moduan.

hik hasi egitasmoa oinez hasi aurretik, eta ondoren ere, hamaika ordutako lana partekatu genuen eta hainbat egitasmotan bidaide izan genuen. Itziarrek Iparraldean barna murgildu gintuen, eta bere ondoan ikusi eta sentitu genuen euskal irakaskuntzaren bihotzak Iparraldean nola taupa egiten duen, ezarritako mugen gainetik.

Baina zurekin bizitako horiek guztiak, borrokatu eta konpartitu-

takoak, guretzat gorde nahi ditugu, zurea eta gurea den altxorraren parte dira.

Donibane Lohizuneko alde zaharrear, Euskal Herriko hamaika esparrutako ehundaka lagunekin batera, Kantauri itsasoaren magalerantz egin zenuen bidaiari lagundu nahi izan zintugun. Eta orduan, zinez ohartu ginen zuk egindako lanaren handitasunaz; herri honi, euskalgintzari oro har, eta irakaskuntzari bereziki eskaini zenionaz. Donibane laztantzen duten olaturtan kulunkan zenbiltzan jada, hainbeste eman zenien haurrek eta adiskideek jaurtikitako krabelin eta loreen artean.

Ikastolako belazean landatutako haritzak zure izpiritu eta kemen agortezina eta itzulezina irudika-

tzen du. Ezin zenuen leku aproposagorik aukeratu: amestu eta borrokatu zenuen horren guztiaren handitzearen eta sendotzearen lekuko pribilegiatua izanen zara. Hainbeste maitatu eta eskaini diezun haurren ezpainei darien euskarak lagun egingo zaitu. Haien jolas eta kantuek inguratuko zaituzte urteen joan-etorrian. Eta belaze gain hartatik aurrez aurre duzun Kantauri itsasoaren kresalak zure adarrak biltzen dituen bitartean, Euskal Herriaren eraikuntzan oinarritzkoa den euskal irakaskuntza aurrera doala ikusiko duzu, lan egin zenuen bidetik.

Izan zirelako gara eta garelako izango dira aurrerantzean ere. Agur eta ohore Itziar, adiskide!

kronika

Iparraldeko ikasleak izan dira ikasturte estreinatzen lehenak. Euskaraz ikasiko duten haurren kopuruak gora egin du, bai sare publikoan, pribatuan zein

Seaskan.

Sare pribatuko eskola girstinoetako Euskal Haziak taldeak aditzera emandakoaren arabera, eredu elebkarreko haur kopurua jaitsi egin da, eta oster, euskarazkoena igo. 1.598 ikaslek ikasiko dute eredu elebidunean, iaz baino 237 gehiagok.

Sare publiko elebidunean ere maila guztietan antzeman da igoera: 2.600 haur dira eskola elebidunetan, 420 kolegioetan eta 80 lizeoetan.

Seaskako ikastolan ere ikasle gehiago izanen dira aurten. Ikasturte hasiera ez da samurra izan ikastola guztietan, eta batez ere Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan. Seaskak kolegioaren eraikuntza alokatu egiten du eta aurten jabeek ez zioten alokairua luzatu nahi. Azkenean, ordea, urtebeterako luzatzea lortu dute, eta aurten bederen, leku berean jarraituko dute.



Ikasturte berria eta Hezkuntza sail berria EAEn

Ikasturte berriarekin batera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu berria jarri da karguan: Angeles Iztueta tolosarra. Aldaketa ustekabean iritsi zen, IU-EB Gasteizko gobernuan sartzearekin batera. Beraz, Sabin Intxaurragak Hezkuntza Saila utzi eta Ingurumena eta Hirigintza Saila hartu ditu, eta Hezkuntzaren ardura Angeles Iztuetaren gain gelditu da.

Aldaketa ematerako Sabin Intxaurragak ikasturte berria inauguratu zuen eta legegintzaldi honetarako bere programen eta asmoen berri eman ere bai. Alde horretatik, Angeles Iztuetak hark aurkeztutako programarekin jarraituko duela jakitera eman du.

Programa horren lau ardatzak ele-aniztasuna, Teknologia Berriak, aniztasuna eta kalitatea izango dira. Ildo horiek jorrazteko hainbat programa jarriko dira martxan, bai ikasleentzat eta baita irakasleentzat ere.

Lanbide Heziketari ere begirune berezia jarriko zaio eta bultzada emateaz gain, Lanbide Heziketaren eta unibertsitate ikasketen arteko lankidetzak programak areagotuko dira. Zeregin hori eta beste batzuk bideratzeko Hezkuntza Sailak sailordetza berria sortu du: Lanbide Heziketa eta bizi-tzan zeharreko sailordetza. Bi zuzendaritza izango ditu: bata Lanbide Heziketakoa, eta bestea etengabeko prestakuntzakoa.

Aldaketen artean Euskadiko Eskola Kontseiluari dagokiona dago, lehendari berria izendatu baitu Intxaurragak. Hortaz, Lontxo Oihartzabal izango da Pello Ellakuriaren lekuko hartuko duena. Eskola Kontseilu honetan irakaskuntzako alor guztietako ordezkariak biltzen dira, eta Eusko Jaurlaritzari aholkuak emateaz arduratzen da.

Bestalde, Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, ikasturte honetan 300.000 ikasle inguru izango dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskoletan. Horietatik %70ek B eta D ereduetan ikasiko dute, eta %30ek A eredu.

Gure arazo nagusia ez da eskola publikoa ala pribatua, baizik eta arrazoi historiko jakinengatik bere garaian lortu ez zen Euskal Eskola Nazionala gauzatzea.

Paulo Iztueta



Unibertsitate Lege berria eta autonomia parez pare

Espaniako Gobernuak prestatzen ari den Unibertsitate lege proiektuak ez du harrera onik izan Euskal Herriko Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Manuel Montero Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak aditzera eman du "EHUren etorkizuna guztiz kolokan geratuko litzatekeela legea orain planteatzen den bezala mantenduko balitz". Antonio Perez Prados Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen esanetan "koherentziarik gabekoa da" eta arazoak ez dituela konpontzen adierazi du. Mondrago Unibertsitateko errektore Javier Retegik ere ez du begi onez ikusten lege proposamena: "lege proiektuak murriztu egiten ditu autonomien eskuduntzak, eta baita unibertsitateen beraien auto-

mia mugatu, unibertsitate funtzionamendua bateratu eta eratzen ari den gizartearen eskaerari egokitutako hezkuntza eredu eta antolamendu sistema berriak eragotzi ere".

Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak "adostasunik gabe" egindako proiektua dela adierazi du, eta gainera "atzerakoia" dela. "Bai unibertsitateak eta baita hezkuntzaren eskuduntza osoa egoera zailean" jartzen ditu Ibarretxeren ustetan. Madrilek jarriera oztopatzaile eta ezkor horrekin jarraitzen badu, sistema unibertsitarioaren ordenazio propioa ezartzea ez duela baztertzen aditzera eman du, eta Eusko Legebiltzarrean horri dagozkion legeak bultzatzea ere ez. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariak ez du adierazpenik egin gai honen inguruan.

Bien bitartean EIRE Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarteak antolatuta *Euskal Unibertsitatea 2001* kongresuan bildu ziren irakasle euskaldunek euskarazko unibertsitatearen garapena bermatuko duten unibertsitate lege propioak aldarrikatu dituzte. Beharrezkotzat jotzen dute Euskal Unibertsitateak bere nortasun propioa unibertsitateko alderdi eta alor guztietan egituratzea, kalitatezko garapen osoa eta eutsigarria lor dadin. Euskal unibertsitatearen ezaugarriak eztabaidatzerarekin batera etorkizuneko estraegiak finkatu dituzte.

Nafarroako egunkarien orrialde gehienek gai nagusi bat izan dute hizpide ikasturte hasieran: gobernuaren diru laguntza argitaratutako euskarazko testu liburuak. Euskal irakaskuntzan eta euskalgintzan dabilen ororen gaitzespena jaso dute, ez baita notizia ona.

Haatik, badira pozteko berriak ere, eta horietako bat da aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen duten Lodosa eta Sartagudako ikastolek argitaratu duten kromo bilduma. *Jolas Truke* izenarekin Euskal Herriko lehen kromo bilduma kaleratu dute euskara hutsean. 7 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago, euskara "era erraz eta erakargarrian" landu dezaten. Izan ere, haur euskaldunei euskaraz jolasteko beste aukera bat eskaintzea da egitasmo honen helburua. Euskal gizartea, kultura eta kirola dira bildumaren ardatz, eta Euskal Herriko irudi ugari aurki daitezke: natur guneak, festak, gazteluak, mendizaleak, txirindulariak, arraunlariak, bertsolariak, idazleak, inauteriak, pertsonaia historikoak eta abar. Kromoen salmentarekin ateratzen den dirua Sartagudako ikastolaren eraikin berria egitera bideratuko da. Dagoeneko Euskal Herriko kioskoetan salgai daude albuma eta kromoak.

GAITIA

Gure ikasliburuak geuretik abiatuta





Nafarroan ikasturte berria iragarritako nobedadekin hasi da. Otsailean esan zuen Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako lehendakariak gaztelaniazko testu liburuak euskaratzeko diru laguntzak emango zituela. Ordura arte erabiltzen ziren ikasliburuak ez ei zuten Nafarroako errealtatearekin bat egiten. Horrela, irailaren 4ean aurkeztu zituen Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak Lehen Hezkuntzarako Ingurunearen Ezaguerarako ikasliburuak.

Oraingoan gauzak azkar egin dira. Administrazio eta burokrazia kontuek eta aldaketek denbora dezente eskatu chi dute, baina intesek dena alda dezakete.

2000. urteko ekainean gerora zeresana eman duen txosten bat argitaratu zuen Historiako Erret Akademiak: "Irakaskuntza Ertaineko ikastetxeetako Historiako ikasliburuak eta kurtsoen inguruko txostena". Bertan adierazten zen EAEko eta Nafarroako Komunitateko zentroetan erabil-tzen ziren testu liburuak Historia faltsifikatu egiten zela eta egungo errealtatea ez zutela errespetatzen.

Miguel Sanzek gogoan hartu zituen aipamen haiek, eta gauzak "kontontzen" hasi zen. Nafarroako ikastoletan eta D ereduko ikastetxeetan erabiltzen ziren ikasliburuak ez zirela "egokiak" adierazi zuen: "Zenbait testu liburutik Nafarroako errealtatearekin bat ez datozen edukiak ikusi ditugu, bereziki mapak, eta hori zuzendu beharra dago". Gobernuak berak derigorrezko liburuak argitaratuko zituela adierazi zuen hasieran. Adierazpen "ausartegiak" izan ziren nonbait, eta berehala zuzendu zituen euskartu egingo zituela esanez. Ondoren, Hezkuntza Departamentuak gauzak argitu eta zehaztu egin zituen asmo hori legearen barruan kokatuz.

Horrela, apirilean Geografia, Historia eta Giza Zientzietako ikasliburuak euskaratzeko diru laguntzen deialdia luzatu ziren ehundik gora argitaletxeei, baina estatu mailako lau argitaletxe indartsuk bakarrik izan dira gai jarritako baldintzei erantzuteko. Euskal Herriko argitaletxeak kanpoan gelditu dira, batzuk hasieratik deialdian parte hartzeko inolako asmorik ez zutela garbi azaldu zutelarik.

Azkenean, lau argitaletxe aurkeztu ziren deialdira eta horien liburuak dira irailaren 4ean Hezkuntza Departamentuak aurkeztu zituenak. Vicent Vives, Edebé, Santillana eta Anaya dira editorial horiek. Lehenengoak 11.700.000 pezeta (468.000 libera) jaso ditu eta Lehen Hezkuntzako maila guztietarako (sei maila) liburuak merkaturatu ditu. Edebe eta Santillanak, berriz, 7.000.000 pezeta (280.000 libera) eskuratu dituzte eta Anayak 6.000.000 (240.000 libera). Hiru editorial horiek Lehen Hezkuntzako lehen

eta bigarren ziklorako materiala soilik argitaratu dute.

Lehen Hezkuntzako Ingurunearen Ezaguerarako ikasliburuak dira guztiak, eta aurrera begira DBH eta Batxilergokoak merkaturatuko dituzte.

Hemendik aurrera, beraz, merkaturako eskaintza areagotu egingo da. Lehendik zeuden euskal argitaletxeek egindako liburuak batera itzultzeko berri hauek egonen dira. Hezkuntza kontseilariaren iritziz "orain arte Nafarroan gabezia bat zegoen, ez zegoen Nafarroari buruzko libururik euskaraz, eta ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegokoak erabiltzen zituzten euskal ereduak". Honek galdera bat dakarkigu burura: euskartu diren liburuak ez dira Nafarroan egindakoak, estatuko editorialetan baizik, eta aldaketak egin gabe zuzenean itzuli direla jakinik, zenbatekoa da Nafarroari buruz duten edukia? Ez al da eranskin edo gehigarri batzuetara mugatzen?

Bestalde, legearen arabera ikasliburu guztiek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren onespina behar dute. Nafarroako gutxieneko curriculum diseinuak ezarritako eduki, jarrera eta prozedurak bete behar dituzte. Liburu berriek onspena jaso dute eta euskal argitaletxeen testu liburuak ere orain arte baimen hori bazuten. Aurrerantzean ukatu egingo ote zaie?

Aurtengo ikasturterako berandu da

Nafarroako Gobernuaren nahia, dudarik gabe, orain arte zeuden testu liburuak baztertu eta berak bultzatutako berriak erabiltzea da. Baina gaitzerekoak ere legalak eta baimendutakoak izanik, ikastetxeek hautatzeko eta erabakitzeko ahalmena dute.

Alabaina, hori guztia ikasturtea hasi aurretik egiten da. Beraz, horrek esan nahi du, Nafarroako Gobernuak irailaren 4ean aurkeztutako liburu berriak ez dituztela erabiliko aurten, irakasleek dagoeneko aukeratuta baitituzte beste batzuk, eta gurasoek erositak.

Bat-bateko zurnunbilcoaren ondoren, hausnarketarako garaia iritsi da. Ez dugu gertakarien itzalpean gelditu nahi, haratago jo nahi dugu. Ikasmaterialen garrantziaz jabeturik, euskal hezkuntza sistemaren eta euskal curriculumaren aldeko jardunean, zer egin dezakegu? Zein bide jarraitu behar dugu? Galdera horien erantzunak bilatzerakoan bidelagun izan dugu Lore Erriondo, EHUko Pedagogia Fakultateko irakaslea eta gaien aditua.

Nafarroako Gobernuak esan du orain arte zeuden euskarazko ikasmaterialetan ez zela Nafarroako oinarritzko curriculum diseinua bermatzen. Ados al zaude horrekin?

Ez, hori ez da egia. Hasteko, ikasmaterialen kontu hau guztia ez da berria. Orain atera da ostera ere Nafarroako Gobernuak erabaki duelako euskal argitaletxeek argitaratutako euskarazko liburuak bazterrean uztea. Eta hori, D ereduko ikastetxeetan erabiltzen diren liburu gehienak izanik.

Urteak eta urteak dira ikasmaterial horien edukia zalantzan jartzen dela, une jakin batzuetan, gainera. Baina ikuspegi politikotik egiten da, ez inondik ere pedagogikotik. Politikoki zuzenak ez ote diren aipatzen da, euskal kulturaren beste bertsio bat bultzako ote duten, terrorismoa edo nazionalismoa, edo ez dakit zer.

Legeak finkatzen du ikasmaterialek bermatu behar duten oinarritzko curriculum diseinua estatu mailan. Beraz, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Espainiako gutxieneko edukia dira. Gero, autonomia erkidego bakoitzak bere kultura propioa irakatsi ahal izateko eskumenak ditu eta horiek finkatzen ditu. Eta hori errespetatuz, argitaletxeek ere beren interpretazioa egiteko eskumena dute. Hori da legeak dioena.

Alde horretatik, ez dago zalantzarik Hegoaldean sortzen diren euskarazko ikasmaterialek, Erein eta Elkar-GIEren nagusiki, oinarritzko curriculum diseinuetan jartzen diren gutxienekoak betetzen dituztenik. Are gehiago, hainbat azterketek erakutsi dute horrez gain kalitate onekoak direla. Gertatzen de-



na da argitaletxeei dagokien eskumena ez dutela berdin planteatzen Euskal Herriko argitaletxeek eta Espainiako argitaletxeek.

Interpretazio hori da Nafarroako Gobernuari gustatzen ez zaiona. Baina egin duena egiteko eskubiderik badu?

Argi dago jokabide politikoa dela, ez dute onartzen argitaletxeek (Euskal Herrikoak barne) euskal kultura transmiti dezaten. Nafarroako Gobernuak "gu Espainia gara" esaten du, ez du esaten "gu Nafarroa gara". "Nafarroa gara, baina Espainia garelako. Ez gara Euskal Herria, eta Euskal Herria den oro arriskutsua da. Guk ziurtatu behar duguna Espainia da". Nafarroari buruz egiten duten irakurketa Espainiaren ikuspegitik begiratuta egiten dute, ez Nafarroatik begiratuta, Euskal Herritik.

Euskal kulturgintzaren eredutik Nafarroa Euskal Herria da, eta nafarrek Nafarroari buruz bezalaxe, Gipuzkoari, Bizkaiari, Arabari, Lapurdiri eta Zuberoari buruz ere jakin beharko lukete.

Hori, ordea, arriskutsua dela dirudi egungo Nafar Gobernuarentzat. Hori da saihestu nahi dutena. Ez dute Nafarroa bermatu nahi, baizik eta euskalduntasun kutsua izan dezakeen oro eragotzi.

Zein izan daiteke jarrera horren arrazoa?

Badakigu ezjakintasuna dela herri bat gobernatzeko modurik errazena. Badakigu ezjakintasunean oinarrituta gizakiak moldakorrakoak direla. Badakigu pentsatzeko aukerarik ematen ez zaionak nekez gara dezakeela pentsamendu propioa bitartekorik ez badu. Orduan, jakintza ukatuta, errealitatea da ukatzen ari garena.

Une honetan Nafarroako Gobernuak ez badu nahi bere kideak euskaldun senti daitezen, egiten ari dena egin behar du, alegia, ukatu euskaldun direnik eta nafarrak direla erakutsi, ez euskaldunak. Eta nafarrak direnez, espainolak dira, ez euskaldunak. Hori da lortu nahi dutena.

Horrela, beren helburu politikoetara iritsiko dira, ez kulturaletara. Helburua da espainiar hiritarrak izatea eta espainiar nazionalismoa zalantzan jarriko duen ezer ez egotea.

Euskal argitaletxeei merkatua murriztea bilatzen dute, beraz.

Bai, hala da. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak zera dio: guk diruz lagunduko dugu euskaraz eskolatzen diren erabiliko duten ikasmaterialaren argitalpena, material horiek zuzenak izan daitezen. Noski, haienez zuzena da Nafarroako, eta beraz, Espainiako, jakintza multzoa bermatzea.

G

Gure ikasliburuak

geuretik abiatuta

Orduan, estatuko argitaletxeei egi-
ten die deialdia, eta soilik estatukoei.
Beraz, ikasmaterialak gaztelaniaz sor-
tzen dituzten argitaletxeei zuzentzen
dizkie diru laguntzak materiala euskara
dezaten edota eranskinen bat edo aipa-
men bat jar dezaten. Sarrerarik ez zaie
ematen euskaraz eta Euskal Herrian
sortutako argitaletxeei.

**Dena dela, azken erabakia ikaste-
txeen esku geratzen da, eurak eraba-
kitzen dutelako zein ikasmaterial era-
bili, betiere baimendutakoa den neu-
rrian. Beraz, Euskal Herriko argitale-
txeena erabil dezakete.**

Bai, baimena duten ikasmateria-
len erabilera ezin dute ukatu. Gerta-
tzen dena da gobernu batek dituen bi-
tartekoak edo gizatald batek dituenak
hain direla desorekatuak! Gobernuak
bitarteko handiak ditu argitaletxe txi-
kien aurkako borroka egiteko. Eta bo-
rroka honetan ez da beharrezkoa ai-
patu ikasmaterialak legez kanpo uz-
tea, baizik eta beste batzuei ematea di-
ru laguntzak, eta ez bertakoei. Ez da
ahaztu behar, gainera, bertakoek aha-
legin handiagoak egin behar dituztela

maila guztietan beren hedadura mu-
rritzagatik, bezero kopuruagatik eta
egin behar duten sorkuntza lanagatik.

Bada, ahalegin horiek burutu ahal
izateko bitarteko guztiak eteten badituz-
te, eta ikastetxe, irakasle ea gurasoak
presionatzen badituzte ez da zertan de-
bekatu behar, zeren heriotza “naturala”
izango baita. Hori da modurik eraginko-
rena. Ez da zertan jo behar legez kanpo-
ra uztera, itotzearekin nahikoa da.

**Euskal Herrian egindako euskaraz-
ko ikasmaterialek Espainian eginda-
koekin konparatuta ikuspegi desberdi-
na dute. Nolakoa da hemengoena?**

Berez, euskal kulturaren jakintza
multzoa bildu eta bermatu beharko lu-
kete, eta saiakera antzematzen da, baina
zalantzan jartzen dut hori egun lortzen
ote duten. Alegia, Euskal Herrian bizi
diren hiritar guztiek beren eskolatze
prozesuan euskal kulturari buruz jaso
beharreko guztia jasotzen ote duten
ikasmaterial horien bitartez. Azterketa
hori egingo bagenu, segur aski EA Eri
buruzko informazioa maila jakin bat ja-
sotzen dela ikusiko genuke, baina Eus-
kal Herri osoari buruzkoa, euskal kul-



**Euskal kultura da
Euskal Herria bere
osotasunean har-
tzea, hots, Euskal
Herriaren historia,
Euskal Herriko ohi-
turak, Euskal
Herriaren artea,
Euskal Herriaren
musika, Euskal
Herriaren fauna,
Euskal Herriaren
flora, Euskal
Herriaren sukaldari-
tza, Euskal
Herriaren elikadura,
Euskal Herriaren
osasuna... Hortik
abiatu behar dugu,
bertakotik, eta gero
hurbilekora eta urru-
nekora zabaldu.
Baina mundura ezin
gara zabaldu berta-
koa ezagutu gabe.
Lehenengo nor
garen jakin behar
dugu.**



turari buruzkoa, euskal kulturaren jakintza multzoa izan litekeena, nire ustez, ez dute bermatzen.

Euskal kulturaren jakintza multzo horrek osatuko al liteke euskal curriculum-a?

Bai, nolabait euskal kultura hori euskal hezkuntza sistemara moldatu eta egokitu beharko litzateke. Jakintza hori bildu, sailkatu, metodologikoki antolatu eta didaktikoki adin bakoitzera moldatu beharko litzateke. Eta horrek lana eskatzen du. Hasteko, bilketa lana egin behar da. Gero, azterketa lana burutu behar da, hots, jakintza alor bakoitzeko adituek kultura horretatik eskolaren eta ikas-materialen bidez jakin eta transmititu behar dena zer den erabaki behar dute. Ondoren, pedagogikoki eta didaktikoki jakintza multzo hori egituratu egin behar da modurik eraginkorrenean, esanguratsuenetan eta adinari egokitu-ta transmititzeko. Hori guztia testura edo dagokion euskarrira pasa behar da, maketatu, ilustratu... Lana itzelezkoa da.

Batzuk esan dezakete lana egiteko gogoia eduki arren hori ezin dela egin ez delako existitzen, alegia, jakintza multzo hori ez dela existitzen, gurean ahozko transmisioa izan delako nagusi.

Egia da, hala da. Urte askotan ez dugu besterik izan ez genuelako hizkuntza estandarrik, ez historia eta kultura ofizialik, eskolan ez zelako ez "euskal" ez euskaraz transmititzen, familia eta gizarte egitura bestelakoa zelako, pasadizoen, istorioen, pertsonen, abestien... bidezko transmisioa zegoelako, beste edozein gizartetan bezala. Eta beste edozein gizartek bezala, gureak ere aurrera egin du eta aurrera egingo du.

Edozein gizarte aldatu egiten da,



eguneratu, bizirik badago eta euskal gizartearen egungo egoera mundu "garatuko" antzekoa da: familia gero eta murritzagoa da, lanera kide gehienak ateratzen dira, elkarrekin pasatzen diren orduak gero eta gutxiago dira, norberaren jarduerak gero eta ugariagoak dira, erantzukizunak familia bereko kideen artean banatu beharrean familia zabalagokoarekin banatzen dira, hots, eskolarekin, eskolaz kanpoko elkarrekin, aisialdiko taldeekin, hedabideekin...

Lehen familia eta lagun bitartez jasotzen zena, orain bereziki eskola, eta hedabide bitartez jasotzen da. Eta eskolaren bitartez jasotzen dena irakaslearen, ikas-materialen, material osagarrien... bitartez.

Ez dugu ahaztu behar kultura ez dela ohiturak, folklorea, aintzimmako "altxorak"... soilik, baita balioak, informazioa eta jakintza ere: historia propioa natura, geografia, musika...

Euskal kulturaren jakintza multzo horren bilketa lana egin aurretik euskal kultura zer den zehaztu beharko da. Zer da zuretzat euskal kultura edo euskal jakintza?

Lehen esan bezala, Euskal Herria bere osotasunean hartzea, hots, Euskal Herriaren historia, Euskal Herriko ohiturak, Euskal Herriaren artea, Euskal Herriaren musika, Euskal Herriaren fauna, Euskal Herriaren flora, Euskal Herriaren sukaldaritza, Euskal Herriaren elikadura, Euskal Herriaren osasuna, hirigintza, industria, teknologia, gizarte egitura, gertakizunak, pertsonaiak, tokiak, espezieak, gaiak... Horatik abiatu behar dugu, bertakotik, eta gero hurbilekora eta urrunekora zabaldu. Baina mundura ezin gara zabaldu bertakoa ezagutu gabe. Lehenengo nor garen jakin behar dugu. Ezagunetik

ezezagunera zabaldu behar dugu, bertakotik inguru hurbilera, gure aldamean ditugun kultura eta hizkuntzetara, gero Europara eta gero mundura.

Gugaren hori gabe, muin hori gabe, abiapunturik gabe bestea lantzeak, eta askotan hori da egiten dena, finean, nora garamatza? Deserrotzera, desidentifikaziora, gu nor garen ez jakitera, nahasketetara... edo besterik gabe akulturazio prozesu horretan ezerk ez gaituela batzen sentitzera.

Berdin egiten gaituenak bildu ohi gaitu, eta akulturazio egoeran zer da berdinean egiten gaituena? Hegoaldean

Argi dago jokabide politikoa dela, ez dute onartzen argitaletxeek (Euskal Herriak barne) euskal kultura transmiti dezaten.

Espainiak eta Iparraldean Frantziak. Kultur etendura dagoenean, transmisiorik ez dagoenean, harremanak eteten direnean eta jakintzarik ez dagoenean, gero eta arrotzagoak gara gure artean, baldin eta gure artean beste kultura nagusi bat/zuk badago/badaude. Kasu horretan gehiago identifikatzen gara bakoitzaren kultura nagusiko kideekin gure baitako kideekin baino. Zergatik? Kultura nagusi horiek gureganatzen baldin bagaituzte eta guztiok haien murgilean bagaude, dagoeneko gehiago garela kultura nagusikoak gure jatorrizko kulturakoak baino. Eta gure artean beraz, arrotz.

Akulturazio prozesu horri aurre egiteko modua izan al liteke lehen aipatu duzun euskal kulturaren jakintza bilketa egitea?

Gure ikasliburuak

gauretik abiatuta

G A I A

G

Bai. Gure kulturak ez dauka inguruko kulturek daukaten tradizio idatzia, sistematizatu, bitartekorik ez dugulako eduki. Bildu, ahoz bildu izan da, baina idatziz ez. Asko dago galduta edo egin gabe horretako aukerarik ez delako izan. Baina horrek ez du esan nahi existitu ez denik eta existitzen ez denik. Eta existituko ote den? Hori gure eskuetan dago.

Gauzak horrela, hainbat gauza egiteke daude, biltzeko eta sistematizatzeko. Haatik, beste hainbat gauza eginda daude, nahiz eta forma eman gabe egon, hau da, ikasmaterialetan ikusten ditugun bezala ez egon. Eginda dauden hainbat eta hainbat azterketa lan, ikerketa lan, plan, bilketa lan, liburu, testu, elkarte, erakunde... hor daude, baina horren bilketa egin behar da zer dagoen ikusteko, zer den aproposa, zer moldatu behar den, zer hutsune dauden... Ez dagoena edo existitzen ez dena, galduta dagoena, sistematizatu gabe dagoena eta beharrezkoa dela ikusten den hori topatzeko eta biltzeko ahalegina egin behar da.

Zeregin hori norena da, gizartearena ala instituzioena?

Momentu honetan euskal kultur-gintzako jende ugari dabil lan hori egiten: Elhuyar, UEU, Eusko Ikaskuntza, Ikastolen Elkarte, Sortzen-Ikasbatuaz, Hik Hasi, Eresbil, Aranzadi, Musika Irakasle Euskaldunen Elkarte eta abar. Ikertzaileak ere baditugu, ikerketa proiektuak eta doktoradutza tesiak egiten dituztenak. Lan taldeak eta elkarteak ere bai.

Alabaina, indarrak bildu behar dira lanak alferrik gal ez daitezen. Noski, ez da erraza nonbaitetik bultzatzen ez bada edo ekimen bateraturik ez badago, eta gainera, gure kasuan bezala, oztopo handiak jartzen direnean. Garrantzitsua da elkarren berri izatea eta norabide bera jarraitzea, elkarren arteko komunikazioa, alegia.

Orain arteko urrats gehienak herri



mugimenduetan oinarrituta egon dira. Instituzioak batzuetan kontra izan ditugu, batzuetan egiten utzi izan digute, beste batzuetan lagundu egin digute, eta beste batzuetan egindakoa aitortu. Baina gure herrian kultur-gintzaren ikuspegitik eman ditugun urratsak gutxitan izan dira instituzioek bideratutakoak, finantzatutakoak, bultzatutakoak eta egindakoa.

Berez zuzenena Hezkuntza Sailek berek egitea izango litzateke. Nolanahi ere, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ez du behar hori ikusten. Badirudi EAeko Hezkuntza Sailak ikusten duela eta bultzatu egin beharko luke, baina ez du oraindik behar adina egiten. Bitartean, zain egongo al gara? Zain egoteak dakarren arriskua galera da. Hizkuntzarekin ere galtzeko arriskua zegoenean, eta oraindik ere badago, instituzioen zain egon izan bagina, galduta egongo zatekeen.

Alegia, halako erasoen aurrean gizarte mailatik erantzun behar zaio. Eta hor bai, argi eduki behar dugu gure arteko komunikazio bideak zaindu behar ditugula.



Lola Valverde

EHUko Giza eta Informazio Zientzien Fakultateko Historia irakaslea eta Jaume Bofill Fundazioaren ikerketaren egileetako bat

Testu liburuen inguruko polemika Nafarroan

Humanitateen dekretuaren ondoren behin eta berriz entzuten ari ginen hainbat autonomia erkidegoetako irakaskuntza ez unibertsitarioan (bereziki DBHn eta Batxilergoan) erabiltzen ziren testu liburuen gaineko salaketak. Halaber, ordura arte izan ez zuten oihartzuna eta ondorioa lortu zuten Historiako Erret Akademiak gerora hain ospetsua izan zen "Irakaskuntza Ertaineko ikastetxeetako ikasliburuei eta kurtsoei buruzko txostena" argitaratu zuenean 2000ko ekainean. Han, oinarritzat hartzen ziren edukiak aipatu ere egin gabe, baieztan zen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen ziren testu liburuetan Historia faltsifikatu egiten zela eta ikasleak nazionalismo xenofoboan eta arrazistan hezten zirela. Berehala sortu ziren erasoak txosten hau autoritatearen argudio bezala hartuta. Eta berez, txostena baino gehiago Manifestua zela esan liteke. Egoera aprobetxatuz erasoak zabaldu egin ziren eta euskarazko irakaskuntzaren gaineko salaketak hedatu ziren. Horrela, PPko Oyarzabal euskal parla-

Nik uste dut administrazioari eskatzen jarraitu behar dugula, gureganako erantzukizuna daukatelako, eta ustez, gure zerbitzura daudelako. Bien bitartean mugitu egin behar dugu. Egingarria dela da nik zalantzan jartzen ez dudana, nahiz eta jakin ahalegin handia eskatzen duela.

Euskal kulturaren jakintza berreskuratze prozesu honetan zenbaterainoko garrantzia dute ikasmaterialek?

Itzelezkoa. Gogoan eduki behar dugu egun, gurean, mundu guztia eskolatzen dela derrigorrez 16 urtera arte, eta ohikoa da 18-20-25 urtera arte hezkuntza instituzioetan egotea. Beraz, ikastetxearen eta irakaslearen bitartez jakintza ugari jasotzen da, ordu asko pasatzen dira eskolan. Eta eskolaz kanpoko ere ez da ahaztu behar: akademiak, elkarteak, aisialdiko taldeak, kultur taldeak eta hedabideak, hedabideak eta hedabideak.

Egoera horretan guztian ikasmaterialek garrantzi handia dute. Ikasmaterialez arigarenean horsartzen dira testu liburua, ariketa liburua, liburu osagarriak, mapak, bideoak, CDak, jolasak, abestiak, Internet... Hots, apunte batzuetatik hasi eta CD bateraino. Orduan, badakigu ikasmaterialek horiek subjektu guztiengana iristen direla. Tresna horiek guztiak erabiltzen dira irakaskuntzan, eta elementurik erangikorrenak dira guztiak eskura eduki ditzaketelako. Beraz, ikasmaterialek guztiengana iristen direnez, horrelako tresnak sortu behar ditugu.

Noski, ikasmaterialekin batera, hezitzaileak ere oso garrantzitsuak dira. Ikasleei euskal kulturaren jakintza transmititzeko hezitzaileek horren jakintun izan behar dute. Hezitzaileak diodanean irakasleak, bererzilariak, laguntzaileak, begiraleak, lagunak, gurasoak, hedabideak... aipatzen ditut. Orduan, horiek ikasi behar dute lehendabizi. Izan ere, nola eska geniezaietako bereaiek ez dakiten zerbait irakastea? Bis-

tan da hezitzaileek ere, hezituek bezalaxe, tresnak behar dituztela jakintza hori jasotzeko, hau da, bereaiek ere ikasmaterialek behar dituzte. Horregatik dira garrantzitsuak, guztiengana iristen direlako.

Eguno egoera ikusirik eta euskal curriculum osatzeko lana oraindik luzea dela jabeturik, zer gerta liteke? Euskal curriculum garaiz osatuko ote dugu?

Nik pentsatzen dut piramidearen ereduak funtzionatzen duela, eta gure artean goitik beherakoa baino gehiago behetik gorakoa izan dela. Eta beste erremediorik ez daukagun bitartean horrela segituko dugu. Alegia, halako erasoan aurrean gizarte mailatik erantzun behar zaio. Eta hor bai, argi eduki behar dugu gure arteko komunikazio bideak zaindu behar ditugula.

Garrantzitsua da gizarte mailako zubiak eraikitzea, komunikazioa existitzea, informazioa transmititzea eta elkarlanean aritzea, eta nola ez, hori guztia balortzea. Horregatik dira oso garrantzitsuak lurralde gaindiko, autonomiaz gaindiko edo jakintza esparruz gaindiko elkarteak, erakundeak eta bilguneak sortzea eta koordinatzea. Eta dudarik ez, sektore guztiak lan egitea: gurasoekin, ikasleekin, irakasleekin, enprekin... gizarte mailan egin behar dugu lan. Gizarte ekimene bitartez egin behar ditugu ahaleginak guri zor zaiguna ikusarazteko eta eskatzeko. Oso garrantzitsua da gure arteko, gizarte mailako, komunikazioa, beste behin irtenbidea gizartetik etor litekeelako. Kasu honetan, Nafarroako Gobernutik ez baita etorriko.

Dudarik gabe, erantzukizun politikokoak badaude, eta politikariek beren mailan lan politikoa egin behar dute. Baina badaezpada ez gara zain egongo. Bakoitzak bere erantzukizunak ditu, eta gizartekide garen neurrian, norberak bere erantzukizunak ditu. Bakoitzak ikusiko du noraino egiten duen bat bere erantzukizunekin.

mentarioak zera adierazi zuen: *“guraso askok euren seme-alabak B eta D ereduetan matrikulatuta dauzkate, eta eredu horietan, inolako disimulorik gabe, testuak manipulatu egiten dira euskaraz. Gurasoek ezin dute zehatz-mehatz kontrolatu seme-alabek ikusten dutena”*. (Diario de Navarra, 2000ko ekainak 29, 2. or.). Euskararik jakin gabe beren seme-alabek ikas dezaten erabaki duten gurasoen artean alarma eta errezeloak zabalteko adierazpenak besterik ez dira. Erabilitako moduaren zitaleria ukaezina da, erabat agerian gelditzen da. Oyarzabalek esaten ez duena zera da: argitaletxe guztietako liburu guztiak berdinak direla bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Are gehiago, liburuak gaztelaniaz idatzitakoak dira eta gero euskaratu egin dira. Hitzez hitz euskaratu, gainera. Testu liburuen aukera zabalaren aurrean, gaztelaniazko liburuak egiten ez dituen argitaletxe bakarra dago eta euskarazkoak soilik argitaratzen ditu. Aipatutako egunkarian bertan eta egun berean, Miguel Sanz Nafarroako Foru Erkidegoko presidentek esaten zuen Historiako Erret Akademiaren iritzi berekoa zela ikastoletako Historiaren irakaskuntzari zegokionez.

“Txosten-Manifestuak” sortutako inpak-tua ikusirik, eta Historiako Erret Akademiak duen autoritatea kontuan hartuz, Jaume Bofill Fundazio katalanak erabaki zuen hainbat Komunitate Erkidegotan erabiltzen ziren Historiako testu liburuei buruzko ikerketa bat egitea. Emaizten fidagarritasuna bermatuko zuen metodologia zientifikoa erabiliko zuen horretarako. Horregatik, lehen baldintza zera izan zen: gutxienez Komunitate Erkidego bakoitzeko ikasleen %85ak erabiltzen zituen testu liburuak ikertzea, betiere DBH eta Batxilergoko mailetan.

Jaume Bofill Fundazioaren ikerketa burutzen ari zenean, Sanz presidentearen adierazpenek harritu egin gintuzten, Nafarroako Gobernuak bere testu liburu propioak editatuko zituela eta derrigorrezkoak izango zirela esan baitzuen. Noski, Humanitateen alorrekoak baino ez: Giza Zientziak, Geografia eta Historia (Diario de Navarra, 2000ko abenduak 12). Egun bereko Diario de Noticiasen editorialean bere ha-

Gure ikasliburuak

geuretik abiatuta

G A I A



rridura azaltzen du Exekutibo Foralaren erabakiaren aurrean, izan ere, “Gobernu-argitaletxe bihurtzeko kompetentzia desleiala egingo lieke enpresa espezializatuari, eta harigarria da baliagarria den testu bakarraren hots, berak homologatutako testu bakarraren editorea bera izatea...”. Bistanenez, ezinezkoaz enpungo merkatu legeen aurka zegoen eta erregimen totalitarioei zegokien horrelako zentzugabekeria aurrera eramatea. Berehala zuzendu zuten eta hasierako proposamena birmoldatu egin zuten.

Finean, Nafarroako testu liburuen arazoa zera da: merkatua txikia denez, estatuko editorial handientzat ez dela errentagarria Nafarroako curriculumari egokitutako liburu espezifikoa argitaratzea, batez ere DBHko goi mailetan eta Batxilergoan. Horregatik, ez zegoen arlo hori lantzen zuen nafar argitaletxerik. Hori dela-eta, hala euskaraz nola gaztelaniaz, ikastetxeetan Euskal Autonomia Erkidegora moldatutako liburuak erabiltzen ziren. Horietako batzuek, Euskal Herriko historiari zuzendutako orrialdeetan “Nafarroa” goiburua erekin lerro urri batzuk gehitzen zizkieten. Beraz, oinarrian argitaratze merkatuaren arazoa da.

Arazo horren irtenbidea Exekutiboak



ikasliburuaren edukiak kontrolatzeko hartu dituen neurri zorrotzak izan dira. Horretarako, 2001eko apirilean ehun milioi pezetako diru laguntza bideratu zen argitaletxe euren liburuak euskaratu zituzten edo euskarazko berriak egin zituzten. Modalitate bakoitzeko bost diru laguntza baino gehiago ez ziren eman. Horrela, estatuko lau argitaletxe handienetakoei jaso zituzten diru laguntzak: Anaya, Edebé, Santillana eta Vicens Vives. 2001eko irailaren 4ean aurkeztu zituen Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak euskaraz argitaratzeko baimena eta diru laguntza zuten lau argitaletxe bakarrek merkatututako Ingurumenaren Ezaguerako testu liburuak. Lehen Hezkuntzarako eskaintza soilik da, baina kontseilariak adierazi zuenez datorren ikasturterako prest egongo dira hezkuntza maila guztietarako ikasliburuak.

Bitarteko eta baliabide horiek guztiak martxan jartzeko arrazoi nagusia ez da izan nafar curriculumak betetzea. Liburu berri horien berrikuntza aipagarrienak hauek baitira: Nafarroak beste euskal probintziekin inolako harremanik ez duten mapak, Euskal Herria hitzaren deuseztapena eta Nafarroako paisaiaren zenbait argazkia. Lagunak liburu berrien aurkezpenean egindako adierazpenak txundituta uzteko modukoak dira: euskarazko testu liburuak argitaratzeko diru laguntzak ematea justifikatzen zuen esanez irtenbide bat zela argitaletxeen errentagarritasun ezak ikasleei kostu gehigarririk ez sortzeko. Errealitateak bestela dirudi: gobernuak Nafarroari buruz egiten duen interpretazioa irakaskuntzan txertatzea izango litzateke. Beste behin ere aniztasunak kolpe latza jaso du.





Aingeru Epaltza

Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria

Ozpin denborako liburuak

Nafarroan baditugu euskarazko testu liburu berriak. Zalaparta handiz aurkeztu zitzaizkien hedabideei, Hezkuntza eta Kultur kontseilari Jesus Laguna bertan zela. Ez ohi da hala izaten. Nafarroan material pedagogiko berrien aurkezpena menpekoen lana izaten da, are gehiago euskarazkoak badira.

Bitxia, beraz, zirenak izatea, eta are bitxiagoa ez zirenak ez izatea. Erabil-tzaile nagusiez ari naiz. Logika guztia- ren kontra eta Departamentuak berak halakoetan egiten ohi duenaren kontra, inork ez zituen ikastoletako edo D eredu publikoetako zuzendariak edo koordinatzaile pedagogikoak ekitaldi- ra gonbidatu. Alabaina, orduko denek zuten mahai gainean Hezkuntzako zu- zendari nagusi Santiago Arellanok ikas- tetxeetara bidalitako oharra: zer eta agindua, egun horretan haien isilean aurkezten zen material hori bera erabil- tzeko. Aurkezpen ekitaldi arranditsuan buru egiten zutenak argi eta garbi uzten ari ziren axola bera dutela pedagogia- ren profesionalen iritziaz eta iazko hai- zeaz.

Neurri horien eraginkortasunak ere ez ditu sobera kezkatzen. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur De- partamentuko arduradunek jakin be- har dute, ikuspegi praktikotik begiratu- ta, zorioneko liburu berriak alferrika- koak direla ikasturte honetarako, gura- soen artean eta klaustroetan nahas- mendua sortzeko ez bada. Delako aur- kezpena hilaren 4an egin zen, astearte- arekin. Nafarroan, lehenbiziko haurrak

-guti batzuk- biharamunean ziren es- kolan hastekoak. Gehien txanda 6an zen, bi egun geroago, beraz. Ergelenak ere badaiki edozein ikastetxetan, plan- gintza hitza kalamu ez bada bederen, testuak ikasturte berria hasi baino hagi- tzez lehenago hautatzen direla. Ho- rrenbertez, ikasleek besapean ekarri zituzten liburuak ez ziren –ez ziren izat- en ahal- Nafarroako Gobernuak egia- ren edukitzaile bakartzat jotzen ditue- nak. Lehengo astean berean ere, aur- kiezinak ziren bai liburutegietan bai hi- perretan. Nahi izanda ere, inork ez zi- tuen erosiko.

Mendebalde zibilizatuko bertze edozein tokitan, hori guztia hezkuntza politikaren kudeaketa guztiz okerraren adibidea baizik ez zen gertatuko. Aldiz, hemen, Foru Gobernuko Hezkuntza eta Kultur Departamentuak bere lor- pen garrantzitsuenetariko bat balitz be- zala saldu nahi dio iritzi publikoari. Pa- sarte barregarri bat litzateke, agerian ut- ziko ez balu alderdi politiko batek bere ideiak Nafarroako gizarte osoan ezar- tzeko duen nahikeria. Eta makurrena da hainbat girotan normaltzat hartzen dela. Ez da normala, ordea. Inork asma- tzen ote du zer lurrikara mediatiko eta politiko gertatuko litzatekeen, Eusko Jaurlaritza edo Kataluniako Generalita- tea ausartuko balira bertako ikaste- txeetan beren soka ideologikoko libu- ruak derrigortzera eta gainerako guz- tiak bidenabarrean debekatzera, zen- baitek egoeraren pertzepzio guztiz zo- rrotzaz eskatu izan dieten bezala? Hori- xe baita Nafarroako Gobernu egiten ari dena. Pluralismoa? Katedra-askata- suna? Nafarroan susmagarria gertatzen hasia da orain arte oinarritzakoak zirudi- ten printzipio horiei heltzea.

Ez dakit zer hutsune betetzera hel- du diren argitalpen berri horiek. Inork ez ditu eskatu, ez ikasleek, ez aita- amek, ez irakasleek. Hala ere, milioi mordoaxahutu dute inork nahi ez zi- tuen testu batzuk argitaratuz. Eta hori euskararekin etengabe zikoizkerian dabilen Departamentu batek egin du. Harixe zor diogu, Hizkuntza Politikara- ko Zuzendaritza Nagusia ezabatu zute- netik, euskara sustatzeko programen deuseztapena, diru laguntzen murriz- keta, irakasle erdaldunak euskarazko lerro publikoetan sartzea, euskara Uni- bertsitatetik kanpora uzteko azpilana,

administrazioan gure hizkuntzaren al- de lanean ari zirenak hutsaren pare uz- tea. Harixe, ahozko irainak eta jendau- rreko mespretxua ere. Harexek antola- tu ditu aurtengo Nafarroako Jaialdiak, “mestizaia” eta “kulturen arteko biziki- detasuna” lelopean, aldi berean Foru Komunitateko bigarren hizkuntza eus- karri guztietatik nahitarat baztertzen ari zela.

Ez da oso aditua izan behar historia kontuetan jakiteko Kontraerreforma edo inboluzio prozesu guztiek beren egia bakarren aldarrikapen ozena be- har dutela, beren Inkisizioaren epaite- giak, beren autofedeak, beren odol garbitasunak –dela arraza, dela ideolo- gia, dela hizkuntza kontuetan oinarri- tuak-, beren liburu debekatuak eta, be- harrik balitz, beren sua horiek erretze- ko. Nafarroan, halatsuko prozesu bat bizi dugu duela bi urtez geroztik hona, bereziki hizkuntzari dagokionez. Gero eta antza handiagoa du hemengo giro- ak Espainia XVI. eta XVII. mendean kulturalki, moralki eta are ekonomiko- ki ere hainbertze pobretu zuen hare- kin: atzerapena, ezberdinarekiko go- rrotoa eta zolda agintarien burmuine- tan. Frankismoaren historiografiak “U- rrezko Mendea” erran zion aro hari, eta orain PPK berreskuratu egin nahi du, bai liburuetan bai gainerakoetan. Orain arteko berek agintean segitzen badute, ez litzateke harritzekoa giza bereko eufemismo harroputz eta han- diosoak aurkitzea zenbait urteren bu- ruan gure ozpin denbora honetarako. Dударik ez da haien testu liburuetan irakurriko ditugula.

Bitartean, isilik dirau Nafarroan be- re burua alternatibatzat jotzen duen al- derdiak.



G

Gure ikasliburuak

geuretik abiatuta

G A I A



Rikardo Ederra

Sortzen-Ikasbatuazeko koordinatzailea

Testu liburuen aferaren inguruan

Gure ustez, azterketa zuzena egin ahal izateko, afera hau testuinguratu, inoiz baino hobeki esana, egin behar da.

Orain dela pare bat urte UPNko gobernuak aspaldidanik zeukan asmo bati ekin zion; "Vascuencearen Legea" gero eta gehiago murriztea, berez hiritarrok (nafarrok) euskararekiko ditugun eskubideak onartzeko garaian oso murriztatzailea delarik. Honen inguruan egindako azterketak eta kritikak asko eta sendoak izan dira.

PSNek aldaketa honi babesik ez dio eman, baina legea garatzen duten dekretuen aldaketari baietza eman dio. Horretan oinarrituz, Nafar Gobernuak administrazioaren dekretua aldatu zuen.

Irakaskuntzaren arloan gauza bera egingen saiatu zen eta behar zuen erantzuna ere jaso zuen; orain dela 15 urtetik hona egindako grebarik arrakatsuen burutu genuen, eta gainera, euskal irakaskuntzak duen baino eremu zabalagoan.

Porrot horren aurrean Arellanok, nork agintzen duen erakusteko asmoz, testu liburuen afera sortu du.

Curriculumaren inguruan (testu liburuak honen euskarri bilakatu dira) esan eta berresan da dagoeneko estatuari %45 zehaztea dagokiola, eta komunitateari gainontzekoa. Horren barnean ikastetxearen autonomia eta irakaslearen katedra eskubidea kokatu behar dira, komunitate autonomoaren ehuneko errespetatuz.

Nafar gobernuak, hots, UPNk, eta zehazki Arellano jaunak, "iragan" faxista duen demócrata de toda la vida horrek, INPOSATU egin du (nahi du) atzerriko curriculum, non Nafarroa maila politikoan garrantzi gabeko probintzia txiki bat besterik ez den, eta inolako entitate propiorik gabe kulturari dagokionez. Bi hitzetan esanda, Nafarroak Kultura Unibertsalari egindako aportazioa esparroa izatea lortu nahi da, askotan Txiletik ekarritako esparago merkea eta ona izanik, gainera.

Euskal kultura, hots, nafar kultura osatzeko osagai nagusia, desagerrarazten duen curriculumaren inposaketa sekularra egin nahi dute. Gure hezkuntza agintariek Nafarroako historiari, geografari (VI: merinaldea edo Nafarroako Ultrapuertos da adibide lazgarriena) eta kulturari, oro har, egiten dioten muzin sekularra da. Orain Del Burgok planteatzen duen Sociedad de Estudios Navarros, ez engaina, Eusko Ikaskuntza baliabide ekonomikorik gabe usteko estrategia da. Besterik gabe. Baliabide horiek esparragoen hobekuntza genetikoan gastatzeko, agian, edota Jotaren inguruan, Olarrari kasu egingez. Nori bururatzen zaio "que un grupo de danzas de Tafalla baile una coreografía marinera vasca."

Baskongadetan sortutako testu liburuak ez dira inoiz "panacea" izan nafar curriculum bere garrantziarekin tratatzeko orduan. Presentzia eskasa izan du Nafarroak. Estatu mailan egiten direnak, orain inposatu direnak, askoz ere lazgarriagoak

dira. Nafarroa errealitatea ezkutatu egiten dute. Curriculum oculto.

Nafarroa, nafar irakaskuntza galtzaila; eskerrak ikastetxeek, irakasleok eta gurasoek "ole" egingo diogun, baietz!!!



Ernesto Delás

SORTZEN-GURASOAK

Nafar Gobernu berriro ari da euskara eta euskal kulturaren aurka. Oraingoan testu liburuekin eta, beste aldietan bezala, inposaketa da nagusi.

Inolako kontsultarik gabe, elkarrizketarik ez. Haren ikuspuntua, haren interpretazioa, interpretagarriak diren gaitan, bakarra da. Eta hori inposatu nahi digu nafar guztioi. Egoera honetan liburu batzuk ofizialak dira eta besteak debekatuak. Francoren garaia gogora ekartzen digu honek guztiak.

Eta gurasoen iritzia ez al da kontuan hartu behar? Eta ikastetxe osoarena? Non dago zentroen autonomia?

Gure ustez, ikastetxe batek segitu behar duen helburua Hezkuntza Proiektua da, baina ez da gure iritzia bakarrik, legearena ere bai. Haurren hezkuntza da irakaskuntzaren objektua, eta gurasoen nahia Hezkuntza Proiektua gauzatzea da. Horregatik, gurasontzat proiektua errespetatzea ezinbestekoa da.

Euskal Herria, guretzat, euskararen herria da, eta jakina, bere kultura eta nortasuna ditu. Arlo politikoa ez da gure eremua, beraz, bakoitzak nahi duena pentsa dezake gai honi buruz. Gure herriaren irakaskuntzan Euskal Herria, herri bezala bere kultura eta nortasunarekin, oinarritzko kontzeptua izatea proposatzen dugu guk. Hemendik aurrera ikastetxe bakoitzak erabaki beharko du noraino, nola, zein baliabideekin eta abar.

“Ondorio nagusia argia da: euskal irakasleria bere herriarekiko ezjakina, analfabetoa bihurtzea”

Miren Zabaleta



Miren Zabaleta

Ikasle Abertzaleak

“Pluralismoa? Katedra-askatasuna?”

Nafarroan susmagarria gertatzen hasia da orain arte oinarritzkoak ziruditen printzipio horiei heltzea”

Aingeru Epaltza

“Nafarroari buruz egiten duen interpretazioa irakaskuntzan txertatzea nahi du Nafar Gobernuak”

Lola Valverde

Euskal Curriculumari buruzko hausnarketa

Curriculumari buruzko hausnarketa bat egin nahi dugun honetan, ezinbestekoa zaigu auzi bat argitzea: zer ulertzen dugun euskal irakaskuntza bezala, eta zer euskarazko irakaskuntza bezala. Bi termino horiek hainbatean nahasiak agertzen dira, gauza bera bailiran. Eta ez diote, inondik inora, gauza berari erreferentzia egiten. Euskarazko irakaskuntza euskaraz garatzen den hezkuntza da, eta euskal irakaskuntza, berri, euskal edukiak (euskal curriculum) euskaraz garatzen dituen hezkuntza. Beraz, gaur egun euskarazko irakaskuntzarantz aurrerapausoak eman izana egia baldin bada ere, euskal irakaskuntzarantz (euskal curriculumaren gauzapenerantz) emandakoak oso mugatuak dira. Hots, gaur egun, euskal irakaskuntza aipatutako zentzuan existitzen dela baieztatzea gezur galanta da.

Gaur egun Madrilek eta Parisek erabakitzen dute euskal ikasleok zer eta nola ikasi behar dugun. Baieztapen horigordina bada ere, ukaezina da, Euskal Herrian inposatuak diharduten bi hezkuntza sistemen ondorioa baino ez baita: frantziar hezkuntza sistema eta espainiar hezkuntza sistema.

Hala ere, curriculum definitzerako orduan, Euskal Herriko Hegoaldean (espainiar legediaren arabera) eta Iparraldean (frantziar legediaren arabera) jarraitzen den bidea ezberdina da: Iparraldean frantziar estatuaren politika zentralista eta homogeneizatzaileen sutsuaren ondorioz, curriculumaren

%100 Parisen definitzen da. Hegoaldean, ordea, teoriarik curriculumaren %45a defini dezakete Gasteizen eta Iruñean, betiere Madrilek ezarritako markoaren baitan. Baina bi administrazio horiek ez dute euskal curriculumerantz abiatzeko inolako borondaterik; are gehiago, Madrilek diotenari men egin eta espainiar curriculum gestioatzen lana besterik ez dute egiten.

Egoera honetatik abiatuta, azkeneko ikasturteetan estatu espainiarrean, eta bereziki Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan, eztabaida faltsu bat sortzeari ekin diote: euskal ikasleok Euskal Herriaren inguruko edukiz hezten omen gara: Euskal Herri osoa barne hartzen duten mapak, Euskal Herria oinarri duten testu liburuak, euskal edukiaren inguruan antolatzen diren irakaskuntza gaiak... Gezur galanta!

Euskal Herriko hainbat ikastetxetan aurrerapausoak eman badira ere, ez diezagutela zirria sartu: eztabaida faltsu hau hedabideetan, legebiltzarretan... hedatu baldin badute, helburu jakin baten arabera egin dute: aurreikusten zituzten lege eta erasoei tokia irekitzea, justifikazio mediatiko bat ematea, alegia. Hor kokatzen dira Humanitateen dekretua edota Nafarroa Garaian testu liburuaren inguruan sortutako iskanbila...

Eraso berri hauek guztiek ezaugarri komunak dituzte, ez bairrik gabe: bate-tik, lege eta dekretu espainiarrak dira, Euskal Herrian euskal herritarren oniritziarik gabe ezarritakoak. Bestetik, izaera homogeneizatzailea eta zentralista daukate. Eta azkenik, ikuspegi neoliberal eta atzerakoi argia mantentzen dute.

Euskal ikasleok frantziar eta espainiar curriculumaren arabera ikasten genduen eta gaur ere, berdinetan gaude. Eta honen guztiaren ondorio nagusia argia da: euskal ikasleria bere herriarekiko ezjakina, analfabetoa bihurtzea. Baina, zergatik? Euskal ikasleak, frantziar eta espainiar herritarrak bagina bezala hezteko, euskal belaunaldi berriak Euskal Herriarekiko arrotzak egiteko.

Euskal ikasleak gara, beraz, egoera honetan kaltetu nagusiak, eta honetat jabetzen gara. Horrexegatik, azkeneko ikasturteetan Euskal Herriaren inguruko ezagutze hezteko dugun eskubi-dearen inguruan hamaika ekimen, mobilizazio eta dinamika garatu ditugu.


G

Gure ikasliburuak

geuretik abiatuta

Baina ikasturte honetan, egoerari aurre hartzen saiatuko gara. Aurten, I-kasleon IV. Biltzar Nazionala burutuko dugu, eta bertan, euskal ikasleok "Euskal curriculumerantz abiatzeko oinarrizko proposamena" garatuko dugu. Argi dago euskal ikasleak ez garela adituak, eta ezinezkoa dela egun batetik bestera euskal curriculum (bere zentzu zabalenean) garatzea. Baina, euskal curriculumerantz aurrerapausoak ematea posible denaren baieztapenetik abiatuta, gutxieneko neurri batzuk garatuko ditugu.

Beraz, ez zalantzarik izan: euskal ikasleok gure kultur eskubideen alde gure alternatiba zertzen ari gara, baina balizko euskal curriculum baten bidean guztion proposamenak ezinbestekoak dira. Har dezagun apustu hau bere neurrian!



Txantxon Zubeldia

Elkarlanean argitaletxea

Inposizioak ez garamatza inora

Arrunt ezaguna da Nafarroako Gobernuak aurtengo urte erdi pasatxo honetan ikasliburuaren inguruan harrotu duen zaborra, ikasliburuak aitzakiatzat hartuta euskarazko hezkuntzari, euskal lurraldetasunari eta euskaldun izateari egindako erasotzat hartu baitugu argitaletxe batek baino gehiagok, nahiz eta denboraren joanean Hezkuntza Saileko arduradunek aitortu duten kontu honen guztiaren helburua Nafarroako Curriculum (beteaztea) dela eta tartean ez dagoela beste inolako helburu politikorik. Baina gogoratu besterik ez dago iazko abenduan Sanz lehendakariak agertu zuen asmoa, euskarazko irakaskuntzan erabiltzen diren liburuak Gobernuak berak itzuliak izatea, erdarazko liburuak oinarritzat hartuta alegia, egia bihurtu dela dagoeneko eta erderaz eta Euskal Herritik kanpora sortu eta Gobernuak berak diruz lagundutako liburu itzuliak direla egun ofizialtzat har litezkeen bakarrak euskaraz irakatsi nahi den ikastetxeetan erabili ahal izateko.

Elkarlanean argitaletxeak orain arte argitaratu dituen ikasmaterialak Euskal Herria osoa kontuan hartuta egindakoak izan dira eta ez du aurrerantzean ere jokabide hau aldatzeko asmorik eta, beraz, ez du Nafarroarako edizio berezirik egiteko asmorik. Honek ez du esan nahi, ordea, lezozkeen ikasmaterial berrietan Nafarroako Curriculumak presentzia gehiago izan dezan saiatuko ez denik, alderantziz baizik. Honez guztiaz gain, kontuan izan beharreko beste kontu bat ere badago; ea zein argitaletxe egiten dion aurre Nafarroarako bakarrik egindako tirada berezi bati, alegia. Aurtengo ikasturterako ikasmaterialak aurreko urtetan bezalaxe banatu ditu ohiko saltokietan gure banatzaileak, eta ez dugu, aurreko urtekin alderatuta, aldaketarik sumatu.

Dena dela, kezka eta amorrurik handia sorrarazi du Nafarroako Gobernuaren erabaki honek euskarazko irakaskuntzaren eta kultur gintzaren eremu zabala osatzen dugunon artean eta beldurrik tentsioa ipinarazi dizkigu, ez baitakigu nola beteaziko dituen hartutako neurriak. Inposizioak ez du ezer konpontzen eta batekin egon beharko dugu euskalgintzan dihardugun alde guztiok, eraso hauei aurre egin diezaiogun.

"Inposizioak ez du ezer konpontzen eta batekin egon behar dugu euskalgintzan dihardugun alde guztiok, eraso hauei aurre egin diezaiogun"

Txantxon Zubeldia





Jon San Sebastian

Erein argitaletxea

Estatuko gobernura iritsi zenez geroztik, PP alderdiak beti izan du "bere" hezkuntza erreforma ezartzeko tentazioa. Hezkuntza Sistemaren Antolaketan Orokorrerako Legea (HSAOL) ez du inoiz gustukoa izan. Dirudienez, ororen gainetik, erkidego autonomoek curriculum akademikoan esku hartzeko duten ahalmenajartzen du auzitan. Hori guztia nabarmenagoa gertatzen da Geografia eta Historiari dagokienean. Gobernu autonomikoek curriculumen parte-hartzearen ondorioz, badirudi lausotu egingo dela Espainiaren "Historia" orokorra erkidego bakoitzaren "Historien" artean. Azken bi urteotan komunikabideetan etengabe agertu diren aitorpenek, Historiako Errege Akademiak Historiako liburuei buruz egin duen txosten batek lagundurik, areagotu baino ez dute egin HSAOLri egiten zaizkion kritikak. Gauza bitxia gertatzen da Nafarroako Gobernu izatea, PPren aliatua, irakaskuntzako eskuhartzean bat-batean agintari gorena bihurtu dena, logikoa den bezala, HSAOLan oinarrituta eta haren hezkuntzako transferentzian.

- Zein izan da hori? Kontuan izanik Nafarroako Erkidegoan ez dela testu liburuak egiten diharduen argitaletxerik, nafar ikasleek, hein handi batean, Euskal Autonomia Erkidegotik zetozen liburuak erabili izan dituzte. Nafarroako Gobernuak, esku hartzeko ahalmen horretan oinarriturik, ezabatu egin du material hori guztia, eta estatuan diharduten lau argitaletxe hautatu ditu. Kontuan izanik aski handia dela Nafarroan irakaskuntza euskaraz jasotzen duten ikasleen kopurua, 70 milioi inguruko "laguntza" eman du bere materiala euskaratzeko.

- Zergatik jokabide hori? Bere ga-

raian aipatu ziren arrazioen artean testu bera erabiltzeko ahalegina zegoen, alegia, euskarazko eta erdarazko testu bera ikasle guztientzat. Argudiatzeko modu benetan bitxia, zeren orain arte EAE-tik iristen ziren testuak eta ikastetxeetan erabiltzen direnak ere bi hizkuntzetan baitaude.

Bestalde, HSAOL legeak ahalmena ematen die autonomia erkidegoei curriculumetan parte hartzeko, gai zerrrendaren %45ean beren hizkuntza propioa dutenei, eta %35ean halakorik ez dutenei. EAEn egin diren liburuak, batez beste, %22,8ra iristen dira hurbileneko edukiei dagokienez, hau da, Euskal Herriko gaietarako dagokienez. Baldin eta Nafarroako Gobernuaren iritziz bere eremuari dagozkion edukiak zabalagoak izan behar badute, gauza naturala dirudi hutsune hori betetzen ahallegintzea. Irtenbidea emanik, zein da Nafarroako Erkidegoari buruzko gutxieneko edukien kuota?... %10?... %12?...

Nolanahi dela ere, pisurik handiena duen arrazoa, orain arte erabili diren testuei egozten zaien balizko karga "nazionalista-separatista" da. Azken bi urteotan egin diren salaketak, arrazismo etnikoari buruzkoak, separatismoari eta tesi terroristei "euskarria" emateari buruzkoak, eman dituzte beren fruituak. Gure eremu hurbilena, Euskal Herria, eskuinek eta ezkerrek onartzen zuten kontzeptu kulturala zen. Gaur egun bekatua da. Lehen Euskadi zen hitz debekatua. Euskadiko Autonomia Erkidegoa errealitate bat baita gaur, orain debekatzen dena Euskal Herriaz mintzatzea da, zeina, politikoki ez bada

"Orain debekatzen dena Euskal Herriaz mintzatzea da, zeina, politikoki ez bada ere, kultura oinarri gisa existitzen baita"

Jon San Sebastian

ere, kultura oinarri gisa existitzen baita.

Bestalde, Jaume Bofill Fundazioak estatuan hedapen handiena duten Geografia eta Historiako 150 libururen ikerketa sakona egin du. Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen diren testuei dagokien kapituluan, hala dio, ez duela aurkitu *"inongo jarrera edo baieztapenik arrazistatzat har daitekeenik edo arrazismo osagairen bat izan dezakeenik. Aitzitik, gehien azpimarratzen diren balioak kultura mestizajea, tolerantzia, dibertsitatea eta horien antzekoak dira"*. Eta honela dio aurrerago: *"Erein argitaletxeko liburuak zorrotz egokitzen zaizkie indarrean dauden egitarau eta legezko araudiari, eta modernoan eta eguneratuenak dira munduaz ematen den ikuspegiari dagokionez, eta orobat eguneroko bizitzari eta bizitzako balioei demokrazian, solidaritatean, tolerantzian, gizon eta emakumeen eskubide berdintasunean..."*.





Jorge Gimenez

Euskal Editoreen Elkarte

Funtsean ez zaigu batere bidezkoa iruditzen egin dena, eta ez nola egin den ere. Aurtengo otsailean, bilera bat izan genuen Santiago Arellano eta Milagros Ortega Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ardura-dunekin. Han garbi ikusi genuen zein zen beraien jarrera. Ordura arte prentsan irakurritako kontuak ez ziren batere argiak; alde batetik Miguel Sanz lehendakariaren hasierako adierazpenak zeuden, gero Gobernuak egin zituen ñabardurak... Beraz, bilera hartan garbi ikusi genuen testu liburuen berrikuspena egiteko erabateko asmoa zeukatela.

Horren aurrean printzipioz ez geneukan ezer esatekorik. Izan ere, beste autonomia erkidegoetan ere gauza bera egin da; edukien aldetik administrazioaren baimena behar izaten dute ikasliburuak. Arazoa hortik aurrerakotan zegoen, gaztelaniazko ikasliburuak itzultzea ere aurikusten baitzen, garai hartan behintzat, Nafarroako Gobernuaren hainbat ordezkariaren aldetik. Oso garbi ikusten genuen horrek euskarazko produkzioko argitaletxei kalte egiten ziela, batetik, eta, bestetik, irakaskuntzarako testuetan ikuspegi bakar eta gidatu bat ezartzeko arriskua zegoela.

Nafar Gobernuak testu liburuak errebisatzeko duen eskubidea onartuta ere, konprenigaitza da zergatik ez diren baliagarriak euskal produkziokoak. Edukien aldetik baimena emateko edo ukatzeko garaian garbi ikusi da euskarazko testu liburuek ez dutela baimenik lortu. Zergatik bota dituzte atzera? Zer hartu duten kontuan, Nafarroako berezitasunak agertzen diren edo ez, ala beste zerbait? Zein punturaino ez zituzten betetzen baldintzak?

Erabakia pedagogikoa ala politikoa izan da? Ezin dugu baloratu, galdera horien erantzunik ez baitauekagu. Beraiek erabilitako kriterioak ez ditugu ezagutzen. Pedagogikoak ez diren beste kriterio batzuk erabili diren susmoa dugu, eta argi dago hor bestelako kultur dirijismo bat dagoela.

Egoera honetan, bertatik eta euskaraz egiten den kalitatezko produkzioa galtzaile ateratzen da, hau da, hemengo argitaletxeak. Honek galdera bat sorrazten digu: posible ote da EAEn produzitzen diren euskarazko ikasliburuak erabiltzea, beharrezko gerta litezkeen egokitzapenak eginda? Hartu duten erabakia politikoa baldin bada, bistan da produkzio horren aurka doazela eta horren aurrean ezin gara isilik gelditu.

Horregatik, egoera honek guztiak badu eragina liburugintzan, baina dudarik gabe, kezkarik nagusiena ez da ekonomikoa. Horrez gain kultur sorkuntza guztia kaltetzen du. Bestalde, ez editore bezala, baizik eta euskal hiritar bezala zera ikusten dugu: ikastetxeek ikasliburuak aukeratzeko duten autonomia murriztu eta mugatu egiten dela.

Dena dela, gutxi egin dezakegula iruditzen zaigu. Bi bide ikusten ditugu. Bata Nafarroako komunitate pedagogikoaren iritzia kontuan hartzea. Eta bestea, Nafarroako eta EAeko gobernuen arteko lankidetzaren emankorragoa izatea, hori gabe nekez bideratuko baita ezer.

Gauzak dauden moduan ikusirik, guztiz ezkorrak gara. Zeren, bertakoei kasurik egin ez badiete, nola egingo digute guri kasu? Miguel Sanz PPren kultur politikaren ildo nagusiak bururaino eramaten ari da, eta, funtsean, helburu nagusi bat antzematen zaio politica horri, Nafarroari dagokionez: Nafarroako euskaldunak gainerako euskaldunen-gandik ahalik eta gehien urruntzea.

“Nafar
Gobernuak
testu liburuak
errebisatzeko
duen eskubi-
dea onartuta
ere, konpreni-
gaitza da zergatik
ez diren
baliagarriak
euskal produk-
ziokoak”

Jorge Gimenez



Gure ikasliburuak

geuretik abiatuta

G A I A

G

E L K A R R I Z K E T A

mixel etxeberri

SEASKAko lehendakaria



Beste eskolekin parekatu
nahi gaituzte eta hori ezin dugu
onartu. Zeren eta gure hegoa,
gure filosofia, hortan da.





Batzuk
esaten dute
negoziaketetan
bakoitzak beretik
utzi egin behar
duela, baina nik
esaten diet ez
dela negoziaketa
komertziala. Gu
hizkuntza
berreskuratzeko
prozesu batean
gara, eta hori
ezin da negoziatu.

Egun Seaskako lehendakaria da Mixel Etxeberri. Seaskaren 31 urteko ibilbidea ondo baino hobeto eza gutzen du, beti aritu baita han eta hemen lanean. Guraso izateaz gain, Kanboko kolegioko Administra-zio Kontseiluko lehendakaria izan zen bi urtez. Orain, Seaskako lehendakaritza kargua duen honetan, Frantziako Hezkuntza Ministeritzarekiko negoziaketetan parte hartzea egokitu zaio. Oraindik amaitu gabe dagoen prozesu horren berri eman digu. Argi esan digu ez dutelako nolanahiko estatuturik onartuko, Seaskaren nortasuna eta helburuak ez baitira negoziatzekoak.

Azken urte hauetan Seaskaren eta Frantziako Hezkuntza Ministeritzaren arteko bilera eta negoziaketetan Seaskaren estatutua izan duzue hizpide, baina momentuz ez zarete inongo akordiotara iritsi. Zein da orain arte Seaskak ukan duen estatutua?

1994tik aitzina estatutu berezia jarri zen guretzat, eskola girstinoek zuten estatutu bera eskaini ziguten. Horrek baimentzen du lehen mailtako eskoletan irakasleak ordainduak izatea. Beraz, irakasleak estatuak ordaintzen ditu, baina horretarako lizentzia bat lortu eta azterketa bat pasa behar izan dute, eta hortan zen lan handiena. Magisteritza ikasketak zituztenei baliokidetasun bat ematen zien, baina beste guztiek lan hori egin behar zuten. Seaskak bere gain hartu zuen irakasle horien formazioa eta zazpi urtetan hori izan da pisu handiena izan duen lana.

Horrez gain, estatutu horrek baimendu eta kasik behartu egiten du herriko etxea haur bakoitzeko dirua ematera eskola publikoetan bezala. Bigarren mailtan, erran nahi baita kolegiotan eta lizeoetan, irakasleak ere estatuak ordaintzen ditu. Horrez gain, funtzionamendurako diru kopuru bat jasotzen du ikastetxe bakoitzak departamendutik: lehen 80 haurrentzat 5.000 libera eta 80tik gorakoentzat 3.000 libera baino gehixeago.

Hortik kanpoko guztia gure gain da: zuzendariak, aholkulari pedagogikoak, ekonomialariak, zaindariak, idazkariak... Eta eraikuntza ere gure esku gelditzen da. Diru hori ezin da eraikuntzarako erabili. Ezin da, legeak ez du baimentzen. Diru laguntza aipatutako azpiegitura eta gastu pedagogikoak ordaintzeko da.

Herriko etxeek ez al dute laguntzen eraikuntza lortzen?

Bigarren mailako eskoletan ez. Lehen mailtan borondate politikoaren eskuetan gelditzen da, eta nahiz eta legeak ez baimendu, leku batzuetan laguntzen dute. Badira truko batzuk: alokairu sinboliko bat ordaintzea, kultura bidea hartuz hizpalau elkarteren artean hartzea nahiz eta gero ikastolarentzat

izan... Adibidez, Hendaian horrela egiten da, Baionako bi ikastolak ere egoera honetan daude, Miarrizten eta Ustaritzen ere bai, eta Donibane Lohitzunen eraikin zaharra da eta berri bat galdezen ari gara. Beste zenbait lekutan eraiki eta gero lortu ditugu diru laguntzak. Baionako lizeoa ere herri komunitate batek uzten digu. Ziburuko kolegioa alokatu egiten dugu, Donaixtikoa ere pribatu batzuei alokatzen diegu. Kanboko geurea da, Herri Urratseko diruarekin lekua eta materiala erosi eta auzolanaren bidez eraikia da.

1994tik gaurdainoko bilakaera nola ikusten duzu?

Nik uste dut ez dugula lanik egin geure garapenari buruz eta geure eredu finkatzeko bidean. Eskas hori sentitzen dut. Ulegarria da egoera ikusirik, baina penagarria ere bai.

Dena den, urratsak ematen hasizineten 1998an. Zerk bultzata?

Gauza hasizenez ginelako asko garatzen eta eskola publikoetan gela elebidunak (B ereduak) irekita diskurtso faltsua eratzten ari zela. Gure aur-



kako kanpainak segitzen zuten "hizkuntza indarkeriarekin lotuz" betiko leloan. Beraz, guretzat egoera zaila zen. Gainera, hizkuntza indarkeria eta betiko gauzekin lotzen zuten, betiko leloak.

Hori guztia kontutan hartuz, gure eredu eta ikastolei maila bateko ofizialtasuna eskainiz, eraikuntzetan botere publikoen inplikazio handiagoa baimenduko zuen estatutu publiko bat galdetzea erabaki genuen.

Beraz, zuek abiatu zenuten negoziaketa prozesua, ez administrazioak.

Bai, guk beste herrialdeetako eskoletan batera: Britainiako Diwan, Kataluniako Bressola, Okzitaniako Calendretak eta Alsaziakoak. Denok koordinatuta hasi genituen elkarrizketak 1998an. Egun batean integrazteko proposamena egin ziguten eta alsaziarrek, okzitandarrak eta katalanak eskapo egin zuten. Integrazioa hitza entzun bezain laster alde egin zuten. Katalanek aurretik esperientzia txar bat izan zuten. Bazen integratu zen eskola bat eta asko galdu zuten; irakasle ez formatuak iritsi ziren, katalana ez zekitenak...


Britainiarrek segitu egin nahi zutela esan zuten, eta Seaskak ikusterat joango zela erran zuten.

Elkarrizketek jarraitu egin zuten, beraz, eta integrazio protokolo bat eskaini zuen Hezkuntza Ministeritzak. Britainiarrek onartu egin dute. Bukatu ez den protokolo bat onartu dute, artikulua guztiak idatzi gabe baitaude. Apustu bat bezala onartu dute, erranik izenpetzen zutela eta ondoren aitzinatuko direla.

Aldiz, guk erran dugu hori ez dela onargarria, zeren eta ez dugu konfiantzarik. Eta pentsatzen dugu arrazoi dugula. Oraindik ez ditugu elementu guztiak, baina uste dut frogatuko dela arrazoi genuela.

Zergatik ez da onargarria integrazio protokolo hori?

Arrazoi bat baino gehiago dago. Lehenengoa zera da: murgiltze ereduaren, hots, D ereduaren edo gure ereduaren gutti gorabeherako ezagupen



aski ona egiten badu ere, ez du berme juridikorik. Guk galdetzen dugu bermea, non gure eredu ez den ukitzen ahalko; horrela da eta kito, ongi definitua gera dadin eskatzen dugu.

Bestela, Britainian gertatu dena pasatzeko arriskua dago. Gela bat ireki nahi zuten eta auzapeza ados zegoen. Herriko Kontseiluan hasi dira mintzatzeko eta erabaki dute gela bat eskaintzea, baina eskola publikoaren barruan, elebarkarekin batera. Guk badakigu, eta idatzia da, D eredu ikastetxeen logika dela, murgiltzea ikastetxe mailan garatu behar dela. Horrelako gauzak oso arriskutsuak dira eta badakigu horrela izorratuko gaituztela.

Eskola publikoek ez dute D eredu eskaintzen. Guk erraten diegu "egin ezazue eta etorriko gara", baina ez dute hori egin nahi.

Bigarren gauza Seaskaren lekua da. Erran nahi baita gurasoen lekua eta parte hartzea kudeaketan. Guk gure eredu jarraitzen duen talde pedagogikoa daukagu eta zaindu nahi dugu, ez baitugu beraienganako konfiantzarik. Formazioa ere guk kudeatu nahi dugu, garrantzitsua baita irakasleen prestakuntza. Eredu ongi da, baina hori atxikitzen duena irakaslea da eta irakasleak eredu atxikitze behar du formatu. Horregatik, irakasleen formazioan parte hartu nahi dugu. Hezkuntza Ministeritzarentzat, ordea, oso bortitza da parte hartu hitza entzutea.

Onartezina den beste puntu bat garapena da. Guk gure eredu eraikitzea nahi dugu, eta aldioro zertarako sortu

Guk
pentsatzen
dugu
integrazio basa
batean sartu
gabe badirela
beste bideak
estatutu bat
lortzeko. Behar
dutena
borondate
politikoa da

ginen oroitarazi nahi dugu. Gu hizkuntza berreskuratzeko sortu eta bizi gara, eta hori ahaztu egiten da protokolo honetan. Beste eskolekin parekatu nahi gaituzte eta hori ezin dugu onartu. Zeren eta gure hegosa, gure filosofia horitan da. Ez gara erori behar bi hizkuntzen oposizioaren diskurtsoan, ez. Guk erraten dugu haurrak elebidunak ateratzen ditugula, bi hizkuntzen menperatze orekatuarekin. Baina gure desmar-txa da euskara berreskuratzeko. Eta hori egiteko behar da gure eredu eskaini, baina eskaini denetan. Horiek nahi dutena da gure eskola integratu eta kito, horretan bukatzen da. Eta hori ezin da onartu.

Integrazioa ulertzeko modu bi ikusten dira: bata, norberarena errespetatuz era normalizatuan integratzea; eta bestea, beraien sisteman sartzea.

Hala da, eta hori ez da negoziaketa. Batzuk esaten dute negoziaketetan bakoitzak beretik utzi egin behar duela, baina nik esaten diet ez dela negoziaketa komertziala. Gu hizkuntza berreskuratzeko prozesu batean gara, eta hori ezin da negoziatu; egiten da edo ez da egiten. Esan dezatela, ez gezurretan ibili.

Bretainiarrak integratu egin dira. Gainontzekook zer egingo duzue aurera begira? Zer aukera ikusten ditu-

zue klabeak izan daitezkeen hurrengo urteetan?

Bai, urte klabeak izango dira. Guk galdetzen jarraitzen dugu. Abenduaren 27an azken bilkura egin genuelarik, aginduz ziguten emendakineko ego-kitze batzuk guretzat, eta oraindik zain gaude. Deitu dugu behin baino gehiagotan, ekainean berriz gutun bat idatzi genuen, eta orain berriro deitzen ari gara bretainiarrek ukan dutena ofizialki guri bildatzeko errateko. Eta hori bada azken hitza, azken eskaintza, erran dezatela.

Eskaintza bere horretan mantentzen bada, ezezkoa emango diozue, orduan.

Baldintza horiekin bai. Seaskako bulegoko 11 kideetatik batek ere ez du onartzen, eta pentsatzen dugu Ikastolen Kontseiluak ere ez duela onartuko Azken erabakia Biltzar Nagusian hartuko dugu, eta onartzen ez bada bertze bide bat bilatzen saiatuko gara.

Zein bide izan liteke?

Jadanik berriz bildu gara okzitandarrak, alsaziarrak eta katalanak. Herri Urratsera gonbidatu genituen elkarrekin lanean hasteko.

Beste eskaintzaren bat jasotzeko aukerarik ikusten al duzue?

Gu saiatuko gara. Guk pentsatzen



dugu integrazio basa batean sartu gabe badirela beste bideak estatutu hobeko bat lortzeko. Behar dutena borondate politikoa da.

Ikas-Bik galdetu du eskola publikoetan D eredua emateko ahalmena, baina ez da erantzunik egon. Zer iritzi duzu aukera horretaz?

Ez da horrelakorik gertatu, berriz diot, sare publikoan D eredu bat sartzeko borondaterik ez dago. Eta Hezkunde aparato osoa ez da prest.

Ikastetxe elebidun publikoetan eta eskola giristinoetan euskara sar-tzeak murriztu al du ikastolek zekar-ten indarra?

Ez dut uste, benetan ez dut uste.

Baina ikastoletan iritsi zen mo-mentu bat ez zutela igoyerarik izan.

Bai, baina arrazoa ez zen hori izan, euskararen aurka egindako kanpaina baizik. Hori izan da kaltegarria.

Hasieran bai, gure aurkako des-martxa zela pentsatu genuen, batez ere eskola publikoaren kasuan. Baina erran behar da hor sartu diren irakasle-ak kontzientziatuta sartu direla. Nik bat-zuk ezagutzen ditut eta nahi dute eta borondatea dute euskararen alde lan egiteko. Erakutsi nahi diete haurrei euskara ez dela eskolan soilik, baita ka-lean ere. Haiek egiten duten indarra garrantzitsua da eta alde horretatik po-sitiboa da.

Ari dira erraten ez dela aski egiten dutena, gehiago egin nahi lukete, eta hori ona da euskararentzat. Nahiz eta ez izan aski, hori elebakarrari kendua da. Gure etsaia elebakarra da. B eredua ez da gure etsaia, euskararen alde da nahi-tanahiez, ez da aski, baina pauso bat da. Hortik aterako direnak D D eredua es-katuko dute beren haurrentzat.

Gizar-tean nabaritzen al da elebita-sun horren aldeko jarrera?

Bai. Adibidez, Sarako eskola publi-koan iaz ez zen haur bat bera ere matri-kulatu A ereduan. Urruñan orain dela 3 urte ireki zen ikastola eta ondotik esko-la publikoan gela elebidunak ireki di-

tuzte. Aurten eskola publiko horretako haur kopurua eredu elebidunaren eta elebakarren artean erdibanatua da-go. Denbora gutxian aldatu egin da egoera, eta hori, nahitanahiez gure era-ginagatik da.

Seaskako ikastolak erreferentzia direnaren seinale.

Bai, gure lana ez da soilik haurrak elebidun onak ateratzea, motorra edo akuilua ere bagara. Jendea tiratzen du-gu eta hori ere oso garrantzitsua da. Iparraldeko euskalgintzaren mugimenduan Seaska ikur ukalezina da, mugimendu gehienak Seaskatik sortu baitira.

Seaskaren ibilbidean 1994ko es-tatutua mugatzat jartzen duzu. Horrek zer esan nahi du, 1994ra arte barrura eta kanpora begira egiten zenutela lan eta 94tik aurrera barruko antolaketa-ra begira jarri zinetela gehiago?

1994ko estatutuaren ondotik ikas-tolak autonomoago bilakatu dira beren funtzionamenduan. Orduan, gutxiago sentitu da Seaska, jendea pixkat urrun-du egin da federaziotik. Horregatik, iaz bezala, aurten ere saiatu nahi dut Seas-kako guraso berri guztiak biltzen eta es-plikatzeko zer den Seaska, zer den joko-an, azken finean.

Baina ez al da ona ikastola bakoitzak bere autonomia izatea bere anto-laketarako?

Ez da txarra, baina ikastola batetik bestera ez dago desberdintasun handi-rik. Irakasleak administrazioak ordain-tzen ditu zuzenean, ez ikastetxeen bi-dez, eta Seaskak kudeatzen ditu. Seas-kari ematen dizkio eta berak egiten du antolaketa.

Hezkuntza Proiektua ikastola ba-koitzak ala Seaskak ezartzen du?

Ikastola bakoitzak bere Eskola Proiektua du, baina Hezkuntza Proiek-tua Seaskarena da. Pedagogia Seaska-ren ardura da, gure estatutueta horre-la idatzia da.



Guk gal-
detzen dugu
bermea, non
gure eredua
ez den uki-
tzen ahalko;
horrela da
eta kito, ongi
definitua gera-
dadin eska-
tzen dugu.



II. Topaketa Pedagogikoak arrakastaz burutu ziren

Arrakastaz burutu ziren uztailaren 3, 4 eta 5ean hik hasi II. Udako Topaketa Pedagogikoak. 20 ikastarotan eta arratsaldeko saioetan parte hartu zuten 600 pertsonak gustura jardun ziren, eta hizlari eta antolatzaileek ere bai. Bigarren urte honetan ikastaro aukera ugaria eskaini genuen eta jendeak batera baino gehiagotara joateko interesa agertu zuen. Oro har, erantzun eta harrera ona izan dute. Horregatik, eskaerak jarraitzen baldin badu eta jendeak parte hartzeko interesa mantentzen badu, datozen urteetan topaketak antolatzen jarraituko dugu.

Ikasi eta edukiak jasotzeaz gain, euskal irakaskuntzan gabiltzanok elkartu ahal izateko aukera eskaini zuten topaketok, eta horrek ere garrantzi handia du.

Topaketak antolatzeko garaian hezkuntza arloko hainbat erakunderekin elkarlanean aritu gara; besteak beste: Pedagogia Fakultateko Hezkuntza Teoria eta Historia Sailarekin, Mondragon Unibertsitateko Humanitateen eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hizkuntza Sailarekin, Bergarako UNEDekin, Ikas Pedagogia Zerbitzuarekin, Pedagogia Aholkularitza Teknikoekin (PAT) eta Ikastolen Elkartearekin. Aurrera begira elkarlan hori sendotu eta hedatu egin nahi dugu, euskal hezkuntzan gabiltzanonek arteko indarrak batzeak denoi mesede egiten digula uste dugulako.

Ikasturte berriarekin batera, aurtengo zenbait ikastarotako edukiak monografikoetan bildurik argiturratuko ditugu. Era berean, hurrengo topaketak antolatzeko lanean murgilduko gara, baina aurretik, eta indarrak hartzeko, uztailako egun haiek gogoratuko ditugu.

Pedagogia Fakultateko lan giroa

Orotara 20 ikastaro eskaini zirenhiru egoitzatan banaturik. Gehienak Pedagogia Fakultatean kokatu ziren, ikastaro teoriko-praktikoak, alegia: *Kohlberg, Musika Hezkuntza Berezian, Heziketa Fisikoko irakasleen txokoa, Praktika psikomotrizia, Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna, Literatura eta haurren txokoa, Literatur txokoa: Lizardi, Mirande eta Sarrionandia, Idazkera "txarra?" Ez eskerrik asko, Niri ez zait matematika gustatzen, Heriotza heziketan, egungo tabua?, Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin... eta Nahigabe psikikoa bideratzeko interbentzio goiztiarra.*

Ikastaro hauei dagokienez, oro har, jendea oso gustura gelditu zen. Ikastaroak onak edo oso onak bezala baloratu zituzten. *Kohlberg, Heriotza heziketan, egungo tabua?, Hizkuntza idatzia eta ikasleen txokoa, Heziketa Fisikoko irakasleen txokoa, Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin...* ikastaroetan hizlarien maila ona, jakituria, gertutasuna eta egokitasuna aipatu zituzten. *Literatur txokoa* eta *Nahigabe psikikoa bideratzeko in-*

terbentzio goiztiarra ikastaroetan koordinatzailearen hurbiltasuna eta partaidetzaren aberasgarritasuna baloratu zituzten. Zenbait ikastarotan espazioa txikiegia izan zela azpimarratu zuten. Banatutako materiala gustura jaso zen, baina askok gehiago eskatu zuten. Asko baloratzen da ikastaroaren edukiak bilduta banatzea, gerora erabilgarri suertatzen baita. Ikastaro gehienetan jarraipena eskatu zuten, eta horrek argi uzten du jendearentzat interesgarriak diren gaiak landu zirela.

Teknologia Berrien erakargarritasuna

Informatika arloko lau ikastaroak Informatika Fakultatean egin ziren: *Web orria lantzen, Aldizkari elektronikoaren prestaketa, Kliketa Ipuin multimediak sortzen, "Fabula proiektua"*. Ikastaro hauek eskatzen duten azpiegitura dela-eta, mugatuak izan ziren, eta eskaera guztiei erantzun ezinik gelditu ginen. Informatika alorrean irakasleen aldetik dagoen eskaera eta ikasi nahia handia diren seinale.

Ipuin multimediak sortzen, "Fabula proiektua" izeneko ikastaroan azpiegitura arazoak egon ziren, hots, eskanerrek, sareak, grabagailuek... ez zuten ondo funtzionatu, eta ondorioz ez ziren aurrez pentsatutako gauza guztiak landu. Beste hiru ikastaroetan, aldiz, ez zen horrelako arazorik sortu eta balorazio oso ona egin zuten hartzailleek. Irakasleak jantziak eta oso onak zirela azpimarratu zuten, eta antolaketa eta planteamendua egokiak zirela. Dena dela, ikastaro trinkoegiak suertatu ziren zenbaitzuen iritziz, hau da, egun gutxitan eduki asko jaso zuten, lan erritmoa azkarra izan zen. Askok eskatu zuten ikastaro hauen errepikapena edota jarraipena.

Gorputza mugitzeko gogoz

Hirugarren multzoa osatzen zuten ikastaroak espresioari lotutakoak izan ziren: *Plis-plast(h)ik(h)asi... Plastika,*

hizkuntza eta dramatizazioa uzartuz, Munduko dantzak, Eutonia eta Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak. Ikastaro horien berezitasuna praktiko-tasuna da eta horixe da, hain zuzen ere, hartzailleek baloratu zutena, beste gauza batzuen artean. Partaidetza eta taldeko giro ona ere aipagarri izan ziren. Eta hori lortzeko emaitzen gaitasuna eta dinamikotasuna ere bai.

Aurkezpen ekitaldiko hitzaldia


Topaketen aurkezpen ekitaldia uztailaren 2an egin zen Gipuzkoako Foru Aldundian eta Joxerra Garziak hitzaldi bat eman zuen. *"Motiboezagupenaren zioak"* izan zen hitzaldiaren titulua eta hizkuntzaren berezko ikasketa prozesuko motibazioaz, ezagutzaz eta erabileraz jardun zen. Gaiaren interesgarritasuna ikusita, egokia iruditu zaigu hitzaldia zuenganatzea eta ondorengo orrialdeetan daukazue.



udako
topaketak
hik hasi

Urtarrilak 3, 4 eta 5
DONOSTIA

hh
hik hasi



Joxerra GARZIA

EHUko irakaslea, bertsozalea eta idazlea

Motiboezagupenaren zioak

Amak dioenez, gure herriko apaiz batek honela hasi omen zuen behin bere sermoia: “senideok, hitz egiten hasi baino lehen gauza bat esan nahi dizuet”. Nork esan du miraririk ez dela gaur egun egiten? Gure herrian bai, behintzat, hitz egiten hasi baino lehen zerbait esatea mirari peto-petoa baita.

Ez dakit berak bazekien, baina arrazoi zuen, hala ere, apaiz hark. Ahoa zabaldu baino ere lehenago ari gara gauzak esaten, komunikatzen. Erreparaiezaziozue gaur hona ekarri dudak itxurari. Arropa jakin bat hautatu dut okasiorako, bai-bainekien hizketan hasi baino lehen egina izango zenutela, begiz, niri buruzko lehen juzkua. Zarpai-legi agertzea txarra da, eta dotoreegi, berriz, hobe ez.

Ez da erraza hau bezalako hitzaldi bat hau bezalako toki batean eta gaur bezalako egun batean egitea. Esan beharrekoa ustez garbi samar izanik ere, esateko moduan dago koxka, gehiengutan bezala.

Ze tonu, ze hizkera-erregistro, ze jarrera ote nituen gaur hemen mintzatze-ko egokienak?

Hasiera-hasieratik erabaki behar izaten baitira horrelako kontuak. Ez da aski gaiaz apur bat jakitea, edo dezente, edo asko. Jakin beharreko guztia jakinda ere pot egin liteke gainerako kontuoi behar bezalako arretarik eman ezean.

Hasiera bera izan ohi da erabakigarriena, hor finkatzen baita hitzaldiak izango duen tonua. Horregatik hasi naiz Legazpiko apaiz hura bezala, esan baino lehenago esaten. Nire kasuan, hainbat hasiera-modu nituen aukeran:

A: Agintari jaun-andre txit gorenok; Hik Hasiko antolatzaile adeitsuok; ikastaro honetako partaideok; jaun-andreok, agur t´erdi.

B: Epa, zer moduz? Ederra giroa, e?

Har nitzakeen erregistroen arteko bi muturrak dira horiek. Aukeran formalegi bata, bestea aukeran pasotegia. Ez da testua bakarrik, testu hori esateko moduak testuak berak adinako garrantzia du-eta.

Kontuak kontu, hasi egingo naiz, iruditzen bazaizue. Eta bestela ere bai. Euskararen eta euskarazko hezkuntzaren inguruko kezkak berdindu egiten

gaituela esango nuke hemen bildutako guztiok, agintari, antolatzaile zein oinezko soil. Kezka horrek, eta kezka horren zenbatekoak, udako oporrei puska bat kentzerainoko kezka izatea gurea. Beraz:

Kezkakide saiatuok, arratsalde on:

1. Motibazioa, ezagutza, erabilpena.

Egokia iruditzen zait hizkuntza jabetzaren kontuetan erabiltzen den hirukoa: motibazioa-ezagutza-erabilpena. Hiru parametroak dira garrantzizkoak, eta ordena ere, begiratu batera, egokia dirudi: motibazioaren bat behar da zerbait behar bezala ezagutzeko ahalegina egiteko, eta zerbait dakienak baino ez dezake dena delako hori erabili. Hizkuntza naturalen berezko jabetze-prozesuan ere argi eta garbi ikusten da hori horrela dela.

2. Moti-ezagu-erabil-pena.

Aitortu, mundu guztiak aitortzen du hiru parametrook elkarri eragiten diotela eten-gabe. “Elkarri eragiten diotela” esanda, ordea, badirudi zer independenteak edo direla parametrook, garai bateko

osasuna-dirua-maitasuna hiruko don-
tsu haren antzera. Eta ez da horrela. Ga-
rai bateko moduan esateko, harreman
dialektikoan daude hiru parametrook.
Legazpiko apaizak bestela azalduko
zukeen kontua: hiru gauza izanik ere,
gauza bakar bat dira. Motibazioa, esate-
rako, ez da ezagutzarako komenigarri,
ezinbesteko baizik. Bestalde, garbi da-
go ezer jakingabe ez dagoela hizkuntza
erabiltzerik. Baina hori bezain egia da
erabili gabe ez dagoela hizkuntza eza-
gutzerik. Eta erabiltzea bera da, gaine-
ra, hizkunaren motibaziorik behinena.
Nola erabiltzen den, hori da kontua.
Hizkuntza jabetze prozesuko hiru pa-
rametroon arteko elkar-eraginarena,
esan bezala, kontu arrunta da hemen
bilduta zaudeten guztiontzat, badakit
hori. Nago, ordea, teoria egoki horrek
merezi lukeen bezalako praxitik oso
urrun ote gabiltzan alor gehienetan.

3. **Igerian.** Hitzaldiaren hasieran
hainbeste lagundu didan apaiza gogo-
an, parabola txiki bat kontatuko dizuet.
“Igeri egitea modan jarri zen garaian, gi-
zon batekigeri eskola bat antolatuzuen,
hortik irabazi ederrik izango zuela sine-
tsita. Pedagogian eta didaktikan aditua
zenez, garrantzi handia eman zion ige-
rian ikasteko metodoari. Motibazioari
bere garrantzia ematen zion, noski: ma-
trikulatzen zitzaion orori sekulako datu
mordoa ematen zion igerian jakitearen
garrantziari buruz. Sariak ere ematen zi-
tuen, igeri grina suspertzeko. Ezagutza-
ri dagokionez, igerian egiteko behar di-
ren mugimendu guzti-guztien berri
ematen zion, hasiera-hasieratik, bere
ikasle alde aurretik horrela motibatuei.
Zehatz-mehatz azaltzen zizkien uraren
osagaiak eta ezaugarriak, nola kimiko-
ak hala fisikoak. Ezagutza hori guztia,
hori bai, lehorrean jasotzen zuen ikasle-
ak. Nolanahi ere, erabilera zen eskola
hartako azken helburu eta motorra. Ge-
ro, ikastaroa amaitutakoan, uretan sartu
eta ikasitako guztia aplikatuz gero, aise
moldatuko ziren noski ikasleak”.

4. **Hiru serribide.** Igerian horrela
irakatsi nahi izatea ez zaio noski inori
bururatzen. Barregarria litzateke. Hiz-
kuntzari dagokionez, berriz, horrelaxe
gabiltza: igeri egiten lehorrean irakas-
ten. Barregarri. Edo negargarri, nahi
duzuen bezala. Ondorioa, begi bista-
koa da: galera handi samarra hautema-
ten dugu guk geure aurrekoekiko adie-
razteko gaitasunari, hizkuntzaren era-
ginkortasunari dagokionez. Tamalez,
hiztun aski egokiak garela uste dut neu-
re belaunaldikook, belaunaldi gaztea-
gokoen aldean. Soziolinguisten bai-
korkeria gorabehera, bada hor gaitz bat
larria, eta uste dut hori dela hasieran ai-
patutako kezka jatorria. Izan, hiru
erakunde handi eta eraginkor ditu gi-
zarte modernoak (gizarte guztiek, edo-
zein gizarte modernok) bere gaitzak
konpontzeko, hizkuntzari dagozkio-
nak barne: 1) Inguru hurbila (etxe-kale-
ak), 2) Eskola (unibertsitatea barne),
eta 3) Hedabideak. Oztopoak oztopo,
geure esku daude hirurak, neurri handi
batean behintzat. Hala ere gaitza hor
badago, ezin izango diogu erru guztia
kanpoko etsaiari egotzi. Zeinen eroso-
den, ordea, beti inoren errutzat jotzea
nor beraren gaitzak eta akatsak.

5. **Zuzen-on-egoki.** Hizkuntza baten
egoeraren diagnosis egiterakoan, bi
azterbide nagusi daude aukeran: kuan-
titatiboa eta kualitatiboa. Kuantitati-
boa, soziolinguistikoena eta politikoe-
na, oro har, kantitatean oinarritzen da
noski. “Begira zenbat jende matrikula-
tu den D ereduari. Begira zenbat bide
seinale euskaratu diren bazterretan.
Begira zenbat ordu emititzen dituen
ETB batek”. Beste bidea, kualitatiboa,
kalitatearena da. Jakina, normala da
orain arte kantitatearekin arduratu iza-
na nagusiki: masa kritikorik ez duen
hizkuntzak alfer-alferrik du kalitatea.
Muturrera eramanda, hiztun bakarra-
ren hizkuntza kalitatea oso gauza anek-
dotikoa da. Bestalde, hedatu ahala kali-
tatea galdu egiten da. Kontua da norai-
no utzi behar zaion kalitateari jaisten.
Euskararen kasuan, uste dut masa kriti-
ko hori harrapatu dugula, eta heldu de-
la kalitateari lehentasuna emateko or-
dua. Geroko, alegia Euskal Herria guz-
tiz euskaldun dezagunerako, utziz ge-
ro, berandu izango da. Euskara heda-
tzen ari ginelakoan hainbeste ahalegin
egin, eta konturatuko gara zabaldu du-
gun hori euskararen antzeko zerbait
bai, baina euskara ez dela. Eta, okerra-



Etxeak eta kaleak eskaini behar bai baina eskaintzen ez dutena eskaini behar luke gure egoeran eskolak. Alegia, egoera komunikati- boak sortzeko saiolekua behar luke izan.

goa dena, ez duela balio hizkuntza batek balio behar duenerako. Kalitatearen hori, ordea, ez da hasiera batean dirudien bezain erraza. Hiru maila daude hor ere: 1) zuzen-ez zuzen, 2) on-ez on, eta 3) egoki-ez egoki.

6. **Zuzen.** Euskaltzaindiaren azken arauen arabera euskara litzateke euskara zuzena, horrelakorik posible balitza. Ez denez, ordea, honako honekin etsi behar: Euskaltzaindiaren azken-aurreko erabakien arabera euskara da euskara zuzena. Idatzian, **hau**, **hori** eta **hura** hatxerik gabe ez dira zuzenak. **Motxila** ere ez da zuzena. **Zerbeza** ere ez. Ezta **kotxe** ere. Ahoz eta jendaurrean ari garelarik, **jaun eta jabe** ez da zuzena. **Yaun eta yabe** da zuzena.

7. **Gn.** Euskal senaren arabera euskara da euskara ona. Euskara bat liteke zuzena eta ez ona. Esaterako, honako bi esapide hauek: 1) **Entrenatzailea**, zirkunstantzia aurpegiarekin aterazen aldageletatik, eta 2) **Entrenadorie**, halamoduzko aurpegiaz urten zeban bestuarixotik.

8. **Egoki.** Bere xederako egokia dena da euskara egokia. Horrela esanik, badirudi tautologia edo Pernandoren egia baino ez dela definizio hori, baina egokitasuna horrela definitzeak honako galdera hau dakar berehala: eta zein da, ba, hizkuntzaren xede hori? Eta horren erantzuna zera da: hizkuntzaren xede printzipala ez da, sinetsarazi nahi izan diguten bezala, informazio truke soila, ez da **hau behatza da, ni Tarzan/zu Jane** esatea. Tximu ginateteke oraindik hori baino premia larriagorik izan ez bagenu hizkuntza asmatu eta gizaki bihurtzeko. **Utikan, etorri maitea, eman, tori!**... tankera horretakoak irudikatzen ditut nik lehen tximu hiztunen estreinako hizkuntza ekintzak. Hizkuntzaren xede nagusia ez baita informazio truke soila, eragitea baizik: besteengan eragitea. Alegia: bestea alai zein trista araztea, bestearengan haserrea piztea, geure bizipenak bestearen bizipen bihurtzea, bestearen ikuspegia geurera behartzea... hori dugu xede, hamarretik hamaikatan, hitz egiten dugunean. Eta hizkuntza kontuetan kalitatearen ordua dela esan badut, esan dezadan orain **egokitasuna** dela, kalitatearen barruan, gauza guztien ardatza. Dudarik gabe, egoki ez ezik ona bada, eta on ez ezik zuzena bada, hainbat hobe. Baina egoki-ez-zuzenaren eta zuzen-ez-egokiaren artean aukeratu behar bada, egoki-ez-zuzenaren alde egin behar genuke beti ere beti. Ez apezta hutsez, ordea. Zuzentasuna hartzen bada ardatz nagusitzat, zuzentasuna baino ez da lantzen, eta hori ere ez behar bezala, akats ortografikoak lekuko. Ontasunetik, berriz, zuzentasuna ere landu liteke. Eta egokitasunak egokiera egokia ematen du hirurak ala hirurak lantzeko. Zuzentasuna eta ontasuna ezagutzari dagozkio, korpus teoriko moduan hartzen du hizkuntza. Egokitasunak, berriz, bere baitan du motibazioa ere, tresna moduan ulertzen baitu hizkuntza: eragiteko tresnatzat, arrakastarako bidetzat. Horixe da, beraz,

hartu behar genukeen bidea: egokitasunarena. Ikus dezagun nola gabiltzan gure gaitzak sendatzeko ditugun hiru guneetan: etxe-kalean, eskolan eta he- dabileetan.

9. **Etxe-kaleak.** Kanpotik eragiteko gunerik zailena da, berez, inguru hurbileko hau. Berez direnak baitira etxea eta kalea, hizkuntzari dagokionez: aberatsa Ataun, Bera edo Lekeition, etsigarria Barakaldo, Tafalla, Baiona edo Iru- nen. Beste bi guneak, eskola eta hedabideak, gune ez ezik tresna ere badira, eta hain zuzen etxe-kaleak kale egiten duten lekuan dira premiazkoen. Erakundeei dagokienez, zaila da etxe-kalearen inguruko ekintza planifikaturik aurrera ateratzen. Egokitu zaigun une historikoan, pazientzia da, seguru asko, gune honetarako dugun armarik eraginkorra. Erakundeek, hori bai, sortzen diren herri-ekimenei nola edo halako bultzada ematea komeni da. Urrutira gabe, Foru Aldundi honek ematen duen sari bat horrela ulertzekoa dela esango nuke. Antoine Abbadie sariaz ari naiz, aurtan Lasarte-Oriako Ttakun elkarteari eman zaiona, eta lehenago, besteak beste, Arantzazuko egutegiari eta Arrasate Euskaldun Dezagun erakundeak jaso zutena. Aipa-

**Ezagutza hutsa-
ren gaineran
eraikitako esko-
la da, oro har,
gurea. Ez dakit
zergatik harri-
tzen garen gero
ikasleen motiba-
ziorik ezaz.**

garri, laudagarri eta sarigarri iruditzen zait, zinez, horrelako elkartean lana. Hala ere, esan bezala, etxe-kalean eragiteko aukera murriztuz samarra da. Hizkuntza politikak, beraz, eskola eta hedabideak ditu bere zutaberik behinen, etxe-kaleak ez bezala, eskola eta hedabideak guztiz egituratuta baitaude, eta, nahi izanez gero, errazago baita horietan eragitea. Lehen esan dudana bezala, gune ez ezik, tresna ere badira hizkuntzaren normalizazioan.

10. Eskola. Eskola diodanean, hezkuntza sistema osoaz ari naiz. Ez naiz itzulituruka ibiliko. Euskarari dagokionez, lastimagarria iruditzen zait hartu dugun bidea. Normaltasun itxura egin nahi dugu, eta hori da normala ez denak anormalago izateko duen biderik onena. Egia esan, bost axola zait niri etxeak eta kaleak euskaldun peto diren inguruetan eskolan zer egiten den. Gertatzen dena da, ordea, oso toki gutxi geratzen dela horrelakorik. Eskolak aspalditxo utzi dio gizarte modernotik ezagutza leku garrantzitsuena izateari. Eskolatik baino areago, laguntzarretik eta hedabideetatik jasotzen ditugaur egun gazteak bere irizpide etiko, estetiko eta ezagutzazkoak. Hori hala da, eta mundu guztian da hala. Euskararen kasuan, ordea, bi aldiz da hori horrela. Etxeak eta kaleak eskaini behar bai baina eskaintzen ez dutena eskaini behar luke gure egoeran eskolak. Alegia: egoera komunikatiboak sortzeko sairolekua behar luke izan. Legearen aitzakiarik ez dago: legea askoz jatorragoa da kasu honetan darabilgun praktika baino. Legeak dioenez, hizkuntza eskola orduen hiru laurdenak, lautik hiru, trebetasunak lantzeari eskaini behar harko lizkioke, gehienjota, eskolak, eta bat bakarrik paradigma eta meta-jardunari. Hizkuntza tresna moduan menderatzen ez duen ikasleari, menderatzen ez duen tresna horri buruzko hausnarketa eskaintzen dio batez ere eskolak. Ez dakit zergatik harritzen garen gero,



D ereduko ikasle horrek erdarara jotzen badu gero. Joko ez du, ba? Gauza aspergarriak ikasteko traste higuinarrria baino ez da euskara gure eskoletan gaur erabiltzen den moduan. Errua, esan bezala, ez da legearena. Ez eta egoerarena berarena bakarrik ere. Inertzia handiak daude eskolan. Bai eskola publikoan, bai ikastoletan, bai unibertsitatean. Profesionaltasunari eman zaio lehentasuna, edo, hobeto esan, profesionaltasun mota jakin bati. Autonomiarik eza arazoa da noski. Baina arazo nagusia beste bat da: geure esku dugun alorrean ere gaizki ari garela, alegia. Hizkuntza eskolak paradigmaren arabera antolatzea erosoagoa zaigu. Askok luzitzen du urriaren 14ean hamabostaldian **zintzaizkiokete** landuko duela alde zurretik dakien irakasleak. Hizkuntza eskola orduak komunikazio egoerak sortzeko erabiltzen dituen irakasleak, berriz, ez daki noiz landuko duen adizki hori, ez daki adizki hori landuko duen ere. Gure sisteman, ez da profesional ona. Profesional onak irai-

lean jakin behar du noiz landuko dituen **zintzaizkiokete**, noiz **mendi-mendi-mendi-menditatik**, noiz **zeniezdake**. Bost axola irakasleak formok guztiok zertarako diren ez badaki ere. Ezagutza hutsaren gainean eraikitako eskola da, oro har, gurea. Ez dakit zergatik harritzen garen gero ikasleen motibazioerik ezaz. Bidean: hizkuntza egoitasunetik, komunikazio beharretatik lantzen duen irakasleak sekulako lana egin behar izaten du, mar-mar gaiztoen kontra ez gutxitan. Ez da txantxa egunero-egunero egoera komunikatibo battersortzea. Eta beharbada, urte guztia irakasleen adieraz-premien inguruan jardun eta gero, ez du **zintzaizkiokete** bezalako adizkiren beharrik izango, eta ez du horrelakorik aipatu ere egingo. Señale txarra, bai. Baina **zintzaizkiokete** horrentzat, ez irakaslearentzat. Egoera komunikatiboak sortzeko bide bakarrik ez dago: izan liteke bertsoa, edo antzerkia, edo irratia, edo beste edozein. Kontua da ikasleari axola zaizkion kontuak adierazteko aukera ematea.

Eta adierazi behar horretan, aurki azalduko zaio ikasleari ezina. Eta amorratu egingo da. Hori da une egokia, paradigmatik eta enparauak erabiltzekoak. Ez ordena ontologikoak hala eskatzen duelako, baizik sortu den premia hori asetzeko baliagarri diren neurrian. Adizkiak, esamoldeak, lexikoa, erregistroak, baliabide poetiko erretorikoak... antzeko premiei erantzuteko gu baino lehenagoko hiztunek asmatutako irtenbideak baino ez dira, azken batean. Alegia: txorakeria galanta dela metafora zer den azaltzea neskak —edo mutilak— liluratzeko moduko metaforak sortzeko gaitasunik ez duen ikasleari. Ikuspuntu horretatik jardunez gero, zuzentasuna eta ontasuna erelatu litezkeela nioen lehenago. Eta egia da. Limurtu nahi duenaren begiak ilargiarekin parekatu nahi dituenari esan egin behar zaio **ilargi** hatxerik gabe idatzi behar dela, oraingoz behintzat. Hobe, hala ere, esaten bazaio limurtu nahi dugun hori haserretu egingo zaigula haren begiak **hildako argia** direla esaten badiogu. Seguru ez zaiola halakori berehala ahaztuko **ilargia** hatxerik gabe idatzi behar dela. Unibertsitatean nabil ni, eta zuek ere badakizue zuzentasuna baino lantzen ez duen gure sistemaren emaitza zer den: folioko 40 akats ortografiko, hor nonbait, hortik gorako kontuak ez aipatzearen. Es-

**Euskara
hedatzeko
ahaleginean,
kalitatezaz
ahaztuxeak
ote gabiltzan,
hori da nire
kezka.**

kolan antolatu dugun anabatatik irteteko, borondatea da beharrena. Sistema garrantzitsua da noski, baina asko dago irakasle bakoitzaren esku, ez dudarik egin. Irakasle ez ezik guraso zairenokin bezain ongi dakizue hori.

11. Hedabideak. Euskarak hedabideetan duen presentzia txikia da oso, eta badirudi txikiago izango dela aurrerantz: dozenaka egunkari, beste hainbat astekari, ehundaka telebista-kate, milaka irrati-emisora ditugu aukeran, eta oso gutxi dira euskarazkoak. Hor badagoke zer kritikatu eta zer eskatu franko, eta horretara mugatzea litzateke erosoena. Zer egiten dugu, ordea, geure esku dauden hedabideetan? Gertuenetik ezagutzen dudana baino ez aipatzearen, EITB, garbi dago utzikeria nabarmenez jokatu izan duela orain arte behintzat, hizkuntza kontuetan. Are gehiago, langile soilon eskaerei entzungor egin izan dio behin baino gehiagotan, esatarion euskara nor berearen esku utzirik. Eta hemen ere, eskolan bezala, euskararen profesional halamoduzko asko sortu da: ez dira gutxi euskaratik bizi bai, baina lan orduetan baino erabiltzen ez dutenak euskara. Denak gaitasun handiko balira ere, ez litzateke nahikoa izango. Batez besteko mailatik goragoko jarduna eskatu behar zaie euskarazko komunikabideei, horretarako sortu genituen-eta, besteak beste.

Euskadi Irratian hasi berria nintzen, 1983ko uholdeak gertatu zirenean. Esatari bakoitzak bere hautua egin zuen: uholde, ojolde, urixola... Ez dut zalantzan jarriko hautu bakoitzaren egokitasuna, baina garbi dago aukera zuzen guztiak erabiltzea ez dela egokia, estandarizatorako aukera zapuzten baita horrela jokatu.

Beste hainbeste gertatu zen uholdeen ondorio lazgarriak pairatu behar izan zituztenak izendatzerakoan: gaitz/min/kalte hartutakoak, kalteak... denetik erabili genituen. Auke-

ra guztiak erabilia, bakar bat estandarizatzeko aukera galtzen da, ordea. Eta horrek ondorio nabarmenak ditu gero. Esaterako, poema negarti (eta negargarri) bat idatzi nahi duen poeta kaxkarrak ez du aipatu sinonimoetan katas-trofearen oihartzunik ekarriko dionik: "Idatz ezazu nire izena zure maitasunak kaltetutakoen/moin hartutakoen/gaitz hartutakoen zerrendan". Erabili ziren guztiak egoki balira ere, egoki asko erabiltzea baino egokiago zatekeen denetan desegokiena bakarrik erabiltzea.

Futbol komentariak kontratatze-ko irizpideak ere hor daude: hegaletatik jokatu behar dela esateko ez da futbol ezagutza handirik behar. Zergatik garai batean eliteko jokalaririk izandakoak aukeratzeko mania hori? Zergatik ez aukeratu hirugarren mailako entrenatzailea izanik hiztun egokia den komentariista? Irizpide lehia dago hor, noski: audientzia ala hizkuntza normalizazioa.

Entrenatzaile aukeratu dute hedabideak, ahal dela Tolosako erara ahoskatuta, **entrenadorie** erabiltzen duten hiztunen txundigarri. Horretan bai esaneko eta zintzo garela: begira nola nagusitu zaion **partida** hitza **partidu** antigualekoari. Baina horiek guztiak azaleko kontuak dira, azken batean, eta nago hortxe amaitzen dela batzuen ahalegina eta ardura. Gaztelania dabil sarri euskarazko hedabideetan, euskarazko lexikoaren jantzi setazkoa jantzita, baina beti bezain tximino. Badakit ezin zaiola mundu guztiari eskatu Euzkitze edo Xabier Usabiaga baten mailarik. Baina gutxieneko langa bat jarri behar litzateke, eta muga hori entzulearen erosotasuna da: eroso sentitzeko eskubidea du entzuleak. Eta nik, egia dio-tsuet, izerdi patsetan jartzen naute EITBko esatari batzuek, esaldia abiara zi eta amaitu ezin dutela somatuta.

Euskarazko hedabideak, gutxi eta antonomasikoak dira: telebista **Telebista** da, egunkaria **Egunkaria**. **Argia** bakarrik geratzen da hortik kanpora.

**Zuzentasuna
eta ezagutza
ardatz nagusi
dituen eskola
eratu dugu.
Ontasunari gutxi
eta egokitasu-
nari batere ez
zaio begiratzen.**



Proporzioan, Egunkariak ahalegin handiagoa egin du hizkuntza kontuetan EITBk baino. Ez dakit, ordea, egokitasunaren parametrotik aritu izan ote den beti, ala gehiago zuzen-ontasunetik. Normala ere bada: debaldeko susmoen pean sortu zen, eta zintzo agertu beharra zeukan.

Horrez gainera, tokian tokiko prentsa geratzen zaigu, euskarari dagokionez. Eta, zenbait tokitan aipagarria da zinez egin den ahalegina. Gertuko albisteak eskaintzeko modurik onena gertuko hizkera da noski, eta hori da tokian tokiko prentsak, oro har, egokiro jorratu duen bidea. Bada ordua hizkuntza egokiaren kontu hori arilarien gaitasun profesionalarekin parekatzeko. Komunikazioan diharduen batentzat, hizkera egokia ez da hizkuntza kontu soila, gaitasun profesionalaren oinarri-oinarria baizik. Eta, ustez, komunikazioan dihardute kazetariak, eta mai-suek, eta politikoeak, eta abokatuek, eta beste hainbatek.

12. Kontuak ateraz. Ahalegin handiak egin dira joan deneko 20 bat urteon hizkuntza politikaren alorrean. Galesen egon berria naiz, Europako hizkuntza txikiaren arteko bilkura batean, eta han inbiritz begiratzen ziguten de-

nok euskaldunoi, Autonomia Elkarteko euskaldunoi behintzat, hizkuntza politikari dagokionez. Denek, katalanek salbu, noski. Nolanahi ere, nago ez ote garen azken 20 urteon sortu ditugun bitartekoak oker erabiltzen ari. Euskara hedatzeko ahaleginean, kalitateaz ahaztuxeak ote gabiltzan, hori da nire kezka. Eta, kalitateari begiratzen zaion apurretan ere, zuzentasunari begiratzen zaio gehienbat. Inoiz edo behin, ontasunari. Bi adibide: 1) etxekalekoa: “herdoil ezinezko altzairuzko estalkiari zeure alderantz tira egin iezaiozu”, beharrak eraginda emakumezkoen komunean sartu eta hango kontainertxoan neure begiz ikusita; euskara zabaltzen ari gara, bai, baina zabaldu behar horretan ez dakit komuneraino iritsi garen, edota, besterik gabe, kaka egiten ari garen. 2) hedabideetako: “honaino iritsi gara”, EITBren kanpaina agertzen dena; nire arazoa izango da, baina esan nahi denaren kontrakoa ulertzen dut nik eslogan horretan: aski dugula, alegia, ez dugula urrats bat gehiago egingo. 3) eskolako: **supergosea daukat**, esaten duen ikasleari kontu hartzen dio berehala irakasleak: **supergose naiz** esan behar da; ikaslearena bezain desegoki, ahul eta antzu, baina, hori bai, dotore jantzita-

koa. Zergatik ez **krokodilo bat jango nuke oraintxe ezkata eta guzti?** Edo, **oraintxe ez daukat, ba, nik, gose makala.** Oker ari gara, alferrikako neke eta gastutan sartuta. Eta txarrena da alferrikako dena kaltegarria dela hizkuntza kontuetan. Gero, jakina, hizkuntza arazoak konpontzeko ditugun tresna nagusietan huts egiten dugunez, kanpotik erremediatu behar izaten dugu okerra. Eskolorduz kanpoko ekintzak, edo aisialdirakoak antolatu behar izaten ditugu, gastu batekin egindako okerra beste gastu batez konpontzeko. Hizkuntza berariaz lantzeko lekuetan ez baikara behar bezala arduratzen motibazioaz, kanpoan bilatu nahi izaten dugu motibazio hori. Hizkuntzari dagokionez, ordea, hizkuntzaren baitan dago, gauzak behar den moduan eginez gero behintzat, motibazioa. Horretarako, ordea, tresnatzat hartu behar genuke hizkuntza. Bestela esanda, egokitasuna hartu behar genuke beti ere geure jardunaren ardatz nagusitzat. Hizkuntza guztietan da hori horrela. Euskararen kasuan, berriz, are gehiago.

13. Hiru aro. Adituek diotenez, giza zibilizazioaren hirugarren aroan bizi gara. Hauek dira fase edo aldiok. 0) Keinu-imintzioetatik fonaziora (30.000 bat

urte), 1) Fonaziotik idazketa asmatu artekoa duela 2.700 bat urte, 2) Idazketa asmatu zenetik XX. mendearen hondarera artekoa, tartean inprenta sortu zelarik (XV. mendean), eta 3) Handik honakoa, **Telepolis** deitu dezakegun aroa, telematika eta hedabide berriek egituratutako gizartea. Hirugarren aro honen ezaugarri guztiak ezin aipa ditzaket hemen, baina badira bi, ari gare-naren harira ezin aipatu gabe utzi ditudanak: 1) Informazioaren gizartean, arazoa ez da informaziorik eza, informazio gehiegizkoa baizik. Informazioa nola eskuratu baino edonoren eskura dagoen informazio oldea nola kudeatu, hori da arazoa. 2) Hedabide berriek hankaz gora jarri dituzte adituen orain arteko eskema guztiak ahozko/idatzizko bikoari dagokionez.

14. Eskola zertarako. Guk ezagutu —eta pairatu— dugun eskola ezagutzaren transmisio leku zen batez ere. Gaur egun ere, hein handi batean, hala da. Tamalez. Tamalez, diot, sekulako astakeria delako gaur egun eskola horretarajartzea, transmisio bide hoberik eta eraginkorragorik nonnahi eskura ditudelarik gazteak. Duen egitura kontuan, gainera, beti berandu ibiliko da egiteko horretan eskola. Berandu eta barregarri. Negargarri, alegia.

15. Eskola ahoz. Oker ari garela esan dut behin eta berriro. Ez eskolan bakarrik, baina baita eskolan ere, eta hori zaigu orain axolako. Zuzentasuna eta ezagutza ardatz nagusi dituen eskola eratu dugula. Ontasunari gutxi eta egokitasunari batere ez zaiola begiratzen. Hori guztia esan dut, eta berriro ere esango dut. Esan dezadan, ordea, egiten den apur hori **idatziz** egiten duela eskolak. Ahozko jarduna debekatuta dago eskolan. Debeekatuta akaso ez, baina esango didazue noiz eskaintzen zaion ikasleari hitz egiten ikasteko aukerarik. Harako parabola hartan bezala, lehorrean irakatsi nahi diegu igerian;

hitz egiteko aukerarik eman ez, eta hitz egiten ikas dezatela nahi dugu. Informazioaren gizarte honetan, ordea, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ahozko jarduna, adituek aho batez airtortzen dutenez. Gizateriaren historian, bi zentzumen izan dira beti lehian, ezagutza-bide nagusi izateko: begia eta belarria. Begia izan edo belarria izan ezagutza bide nagusia, ez da bakarrik ezagutza nondik sartzen den. Aitzitik, bategitiki eta bestetik sartzen den ezagutza diferentea da. Belarriaz linealki dihardu: bata bestearen atzetik jasotzen ditu jaso beharrekoak: analitikoak da. Begiak, berriz, kolpe batez jasotzen ditu jaso beharrekoak, aldi berean: sintetikoa da.

Egoera komunikati-boak sortzeko bide bakarrik ez dago: izan liteke bertsoa, edo antzerkia, edo irratia edo beste edozein. Kontua da ikasleari axola zaizkion kontuak adierazteko aukera ematea.

Hala ziren, behintzat, gauzak, idazketa asmatu arte (eta, batez ere, idazketa inprenta bidez hedatu arte). Idazketak konplikatu egiten du eskema txukun hori. Idazketaren bidez, ezagutza modu analitikoan jasotzen da (belarriari dagokion moduan), baina begiz jasotzen da ezagutza hori. Entzun ala ikusi dileman, hirugarren elementu bat sartzen du idazketak: alfabetikusmena. Guk ezagutu eta jasan dugun eskola, Ilustrazioaren eta Frantziako Iraultzaren sorkari da, eta alfabetikusmenari ematen dio erabateko lehentasuna. XX mendearen amaiera arte egoki zen hori, gizartean ere ezagutza bide horrek baitzuen lehentasuna. Telematikak eta

hedabide berriak egituratu duten gizarte modu berrian, ordea, alfabetikusmena gero eta bazterrekoagoa da, idazketa asmatu zenekoaren pareko iraultza gertatu baita azken hamarkadotan. **Zinemak** eta **telefonoak** lehenik, **irratia** eta **telebistak** gero, eta, azkenik, ordenagailuek eta Internetek, hankaz gora jarri dituzte orain arteko gure segurantziaz oro. Zineman, telebistan eta irratan, ahozko jarduna da nagusi, baina idatzian oinarritutako ahozkoa da gehienetan. **E-mail**etan, **txat**-etan eta **SMS** (sakeleko telefono bidezko Mezu Laburren Sistema, 160 karakter), idatzizkoa da jarduna, baina ahozko hizkera erabiltzen da.

16. Estrategiak. Zenbaitek, egiturarik eta estrategiarik ezarekin identifikatzen du ahozko jarduna. **Diskurtso idatzia** legoke mutur batean, estrategia jakin batzuen bidez xede jakin baterako ongi egokitua, eta **ahozko jarduna** beste muturrean, diskurtsoa baino areago jario hutsa, egiturarik eta estrategiarik gabea. Gazteen hizkera ikusirik, pentsa liteke arrazoizkoa ere badela ikuspegi hori: ezagutzen duzue **Budweiser** garagardoaren iragarkia, **Wasssa!**, fonazioa sortu aurreko arora garamatzana. Ez da egia, ordea. Bizi dugun aroko hizkerak bere legeak ditu. Ez da ahozkoa eta ez idatzizkoa ere. Ahozko idatzia da kasu batzuetan, eta idatzizko ahozkoa beste batzuetan. Hibridoa, nahasia, berria. Baina aro berrian ere ezinbestekoak dira diskurtsoaren estrategiak. Diskurtsoa, hori bai, ez da biziko, orain arte bezala, batez ere liburuetan. Baliteke liburua desagertzea ere. Testua, berriz, diskurtsoa, ez da desagertuko. Inprentaren aroari dagokion diskurtso moduak ez du balio telepoliserako. Diskurtso analitiko, egitura sendoko, aldi eta alde jakinetan kokatutako, erreferentzia garbidun hura agortu da. Gure aroari dagokion diskurtsoa, berriz, ez-proposizionala da, orokorra, beste modu batean egituratua, errefe-

rentzia eta erro zehatzik gabea. Eta horretan beharko dute trebe izan gazteak, gaitasun horrek emango baitie, ezerk ematekotan, arrakastaren giltza. Eskolan, ordea, aspaldi galdu genituen giltzak.

17. Utzidazue, amaitzeko, etxe-alde jokatzen. Globalizazioa hitzetik hortzera dabilen honetan, unibertsala izatea da norbanako eta herri guzti-guztien gurari. Unibertsaltasun hori, ordea, okerreko lekuan bilatu ohi dugu sarri, homologazio konplexu gaizto batek jota baikeunde bezala. Sarean jarriz gero, urre irizten diogu kakari ere. Eskolan ere aurki daiteke horren isla, ezaguna egiten zaigu: filminekin gertatu zen, eta bideoarekin, eta ordenagailuekin. Errezeta magikoaren zain beti, hori gabe deus egiterik ez balego bezala. Eta, askotan, beti ez esatearren, nor bere dohaiak eta ezaugarri bereziak ongi usiatzea da unibertsal izateko bide bakarra. Rubert de Ventos filosofoak dioen bezala: *“Vulgar es siempre y sólo la incapacidad de traducir fielmente la propia coyuntura; la disolución de esta coyuntura en una eidosfera de imágenes, fórmulas y significados que le dicen en cada caso al individuo qué debe ser considerado como fondo y como figura, qué entender como ruido y como mensaje, cuál es la causa y el efecto”*. Esan nahi dut, alegia, eskolan eta komunikabideetan idatziaren morrontzatik askatu ezinik bagabiltza ere, baditugula aro berriko diskurtso modua ongi bai ongi kudeatzen duen artista jende bat. Bertsolariez ari naiz, noski. Ahoz ari da **bertsolaria**, eta bat-batean ari da. Baina ez da ari estrategiarik eta egiturarik gabe. Bat-bateko bertsolariaren dohairik interesgarriena hori da, hain zuzen ere: oso denbora tarte txikian diskurtsoa egoki egituratzeko gaitasuna. Oker ez banaiz, dohai hori izango da aurki gizarte honetan dohairik preziatuena, eta bertsolari izateko asmorik ez dugunok ere hobe genuke horretan

trebatzen hasi. Baina bertsoa ez da noski bide bakarra. **Nobelak** XX mendearen hasieran hasi zen, idatziz, ahozko prozedurak imitatzen (errusiarren **skaz**; Döblinen **Berlin, Alexander-plaz**...). **Antzerkiak**, berriz, aspaldian deskubritu zuen ahozkoa eta idatzia ez direla uste bezain elkarren kontrakoak. Ni bezala adineansartu xeonak ez dujanik erremedio handirik. Gazteenak, ordea, bai. Tamalez, itxura guztien arabera, eskolaz kanpo ikasi beharko dute aurrerantzean ere gazteek gizarte berriaren ezinbesteko izango zaien trebetasun hori. Nahiago nuke oker banengo, baina uste dudana bezala gertatzen bada, eskolak aro bateko atzerapenez segitzen badu, indarrean segituko du Simonek dioena: *“la práctica escolar es a menudo para los jóvenes una especie de verdadera ficción, de penitencia más o menos prolongada, terminada la cual finalmente se puede volver a la auténtica y verdadera realidad, que es la de lo no-proposicional, o de lo moderadamente proposicional”*.

18. **Esan osteko esanak**. Mirari batekin hasi naiz, eta beste mirari batekin amaitu nahi nuke. Esan beharrekoak esan eta gero gauza bat esan nahi dizuet. Badakit esan ditudanak entzuteko premia gutxien hemen zaudetenok daukazuela. Horretan ere, apaizek bezala jokatu dudalakoan nago: zer, eta mezataria etorri egin, jendea mezataria joaten ez delako. Arriskutsua da zuek hautatu duzuen bidea, kezka betetako bidea da, ez baitakigu nora garamatzen. Beste bideak, berriz, badakigu zergatik deitzen dioten bide segurua: porrot segurura garamatzalako. Barkatu, beraz, gaizki esanak, eta niregatik behintzat bazoazkete Jainkoaren Bakean. Baina, hori bai, ez etsi zuen ahaleginean, askotan antzu eta esker txarreko egingo bazaizue ere. Mila esker zuei, bostehun eguneroko zuen ahaleginarengatik eta beste bostehun gaurko zuen pazientziarengatik.

Bat-bateko bertsolarien dohairik interesgarriena hori da: oso denbora txikian diskurtsoa egoki egituratzeko gaitasuna. Oker ez banaiz, dohai hori izango da aurki gizarte honetan dohairik preziatuena, eta bertsolari izateko asmorik ez dugunok ere hobe genuke horretan trebatzen hasi.



Zumeta proiektua

Igeldoko herri eskolan Zumeta proiektua burutu zuten iazko ikasturteko lehen hiruhilabeteetan. 4 urteko sei haurrekin eta 5 urteko beste hainbesterekin jardun ziren. Irakasleek beraiek kontatuko digute zer dela eta bururatu zitzaizen proiektu honetan murgiltzea eta zer egin zuten.

Zergatia

San Martin azokan erakusketa bat zegoen eta hara joatea polita izango zela pentsatu genuen. Lehenago, ordea, gelan zer bait landu behar genuela iruditzen zitzaigun, eta horrela, proiektua gorpuzten hasi zen.

Konstruktibismo mintegian gaudeenez, Zumetaren proiektua ildo honetatik bideratzea erabaki genuen.

Material bilketa

Laguntza bila Billabonako eskolara jo genuen. Bertako irakasle den Mari-bik gaia aurreko ikasturte batean jorratu zuenez, landutakoa azaldu zigun eta ilusioa eta gogoia transmititu ere bai. Liburuak, katalogoak eta bideoa utzi zitzaigun. Bideoan han egindako lanak agertzen ziren.

Kurtsu hasiera zenez, guraso bilera hurbil genuen, eta aukera paregabea zen gure ideia azaltzeko eta beraien in-

plikazioa lortzeko.

Materiala lortzeko iturriak bi izan ziren nagusiki:

- Ikasleek katalogoak, posterrak eta CD bat ekarri zituzten.

- Irakasleok liburuak eta artikulatuak lortu genituen hainbat bidetatik. Liburu bat azokan bertan erosi genuen, eta baita lamina bat ere. Horrez gain, Interneten Zumetaren biografia lortu genuen (gela osoak jo zuen ordenagailura informazio bila).

Proiektuaren gauzatzea

Proiektu honekin hainbat arlo landu genituen: hizkuntza, plastika, musika, irteera, argazkilaritza, erakusketa...

Hizkuntza

Zumetari buruz bildutako liburuak gelan utzi genituen eta haurrei liburuak ikustea proposatu genien. Era berean, galderak eginez hainbat gauza irakatsi genizkien:

- **Elkarrizketak** bultzatzen genituen: zer ikusten da? Polita al da? Gustukoa al duzue? Ezagutzen al duzue? Ipui-na al da?

- **Liburuaren izenburuak** ere joko handia ematen zigun: izenburua irakurtzeko, letrak zenbatzeko eta hainbat galdera egiteko: ezagutzen al dituzue letra hauek? Zuen izenetan agertzen al dira? Beste zenbait ariketa ere egin genituen: izenburua arbelean idatzi, izenburua haurrek beraien modura idatzi, irakasleak izenburua idatzi eta egiaztatu.

Zumetaren txokoa

Gelan Zumetaren txokoa egitea proposatu genuen bertan material guztia eskura izateko. Ikasleei etxean zuten Zumetari buruzko materiala eskolara ekartzeko esan zitzaizen txokoa jarririk ahal izateko. Horrela, poliki-poliki, ekartzen zuten materialarekin txokoa osatzen joan ginen.

Txokoa izendatzeko beharra agertu zen eta hainbat proposamenen artean "ZUMETA" zela egokiena erabaki zuten haurrek. Ondoren, tenperaz idatzi genuen.

Gurasoek margolari honi buruz zer zekiten jakin nahi genuenez, paper bat luzatu genien galdera batekin: amatxo eta aitatxo, zer dakizue Zumetari buruz?

Gelara ekartzen zutenean, haur bakoitzak irakurriko balu bezala egiten zuten eta talde osoari kontatzen zion bere gurasoek idatzitakoa. Ondoren, irakasleak irakurtzen zuten haurrek nahi izanez gero.

Jasotako erantzunekin zer egin genezakeen galdetu ondoren, liburuxka (kuadernazio) antzeko bat egitea erabaki zen. Izenburua behar zenez, hainbat aukeratutako bat hautatu eta errotuladorearekin idatzi zuten: "Aitatxo eta amatxoek dakitena". Politago gelditze-ko apaindu egin behar zela-eta, batek gometsak jartzea proposatu zuten eta horrela egin zen.

Biografia

Lanari jarraipena emanez, gure hel-

burua Zumetaren biografia egitea zen.

Horrela, zenbait egunetan komikiak eta hainbat biografia liburu ikusten aritu ondoren, arbelean idatzi genituen bi testu horien arteko desberdintasunak:

Komikiak	Biografia
letra gutxi	letra asko
marrazki asko	marrazki gutxi
asmatura	erreala
gozatzeko	pertsona ospetsu baten datuak jakiteko

Ondoren biografia hitza idatzi genuen arbelean. Letrak kontatu genituen eta zenbait galdera egin genizkien: ezagutzen al dituzue letra horiek? Zuen izenetan ba al daude?...

Autobiografiaren eta biografiaren arteko desberdintasunak ere landu genituen. Arbelean bi hitzak idatzi eta desberdintasunak ikusi genituen: autobiografia norberak egiten du eta biografia beste batek idazten du.

Autobiografia hitza idatzi, letrak kontatu eta galderak egin genizkien: ezagutzen al dituzue letra horiek? Zuen izenetan ba al daude?...

Gero Zumetaren biografia egin genuen. Laguntza modura galdera batzuk prestatu genizkien orri batean eta haurrek galdera horiek erantzun zituzten. Berez ez da biografia bat, galdetegi bat baizik, baina hala ere horrela utzi genuen.

Irteera

Proiektu honen inguruan irteera bat egin genuen 2000ko urriaren 18aren goizean. Bi heldu eta 4 eta 5 urteko 11 haur joan ginen.

Irteeraren helburuak bat baino gehiago ziren: Zumetaren lana ezagutzera, "Bide heziketa" lantzea, taldeko harremanak sendotzea eta goiz polita igarotzea.

Aldez aurretik San Martin azokara joango ginela esan genien, eta horren inguruko elkarrizketak bultzatu genituen: nola joango gara? Trenez, airez,



autoz, autobusez? Zer da autobusa? Non hartu behar dugu? Zenbat ordaindu behar da? Nola joan behar da autobusean? Kalean nola ibili behar da? Zer da semaforoa? Noiz pasatu behar da?...

Beste egun batean elkarrizketa beste ildo batetik bideratu genuen: zertara goaz San Martin azokara? Zer ikusiko dugu? Zergatik dago erakusketa bat azoka batean? Zer behatuko dugu? Neurria, koloreak, margotzeko teknikak, izenburuak, sinadura...

Irteera egunerako nahiko argi zuten zertara gindoazen. Oso goiz polita izan zen. Udazkena gaiarekin lotu eta azokan udazkeneko fruituak erosi genituen. Argazkiak ere atera genituen.

Argazki bilduma

San Martin azokan atera genituen argazkiekin zer egin planteatu genien eta zenbait proposamen aztertu ondoren liburu antzeko bat egitea erabaki genuen.

Lanaren antolaketa

Haurrak binaka jarri ziren, 4 urteko haur bat eta 5 urteko beste bat elkartu genituelarik, handiek txikiei laguntzen dietelako eta bi taldeen harremanak indartzeko aukera ematen zuelako.

Bikote bakoitzak argazki bat auke-

ratu zuen eta paperean itsatsi. Ondoren bikote bakoitzak pentsatu behar zuen zer idatzi argazkiaren beheko aldean. Batzuek beren kabuz idatzi nahi zuten eta beste batzuk, berriz, helduen laguntza eskatu zuten.

Argazki liburuak azalaren beharra zuela ikusi genuenez, zer egin pentsatzen hasi ginen, eta azkenik koloretako marrak egitea pentsatu genuen, Zumetak ere hala egiten zituelako. Tenperaz egin genituen marrak eta izenburua errotuladorez.

Argazkien lana bukatu ondoren egileen izenak jarri genituen orri batean. Eta bukatzeko, gurasoei beraien iritziak jartzeko aukera eman genien beste orrialde batean.

Lan luzea eta neketsua izan zen argazki asko genituelako.

Erakusketa

Lan hau guztia biribiltzeko erakusketa bat egitea pentsatu genuen. Inauterietan guraso gehienak etortzen direla aprobetxatuz, orduan antolatzea erabaki genuen.

Eguna iritsi baino lehen zenbait lantxo egin genituen: gonbidapena, kartelak...

Gonbidapena

Ohiko ildo jarraituz, galderak lu-

zatu genizkien: zer da gonbidapena? Zertarako egiten da?

Ondoren, gonbidapena egiteko hainbat material erabili genuen: folioak, errotuladoreak, arkatzak, gometsak...

Haur bakoitzak bere gurasoentzako gonbidapena egin zuen ordenagailuz. Hutsuneak bete zituen gurasoen jarriz eta baita apaindu ere errotuladore eta gometsen bidez.

Kartelak

Beti bezala elkarriketarekin hasi ginen: zer da kartela? Zertarako egiten dira? Nork egiten ditu?...

Erabili genuen materiala kartulinak, paper handiak, tenperak, errotuladoreak eta gometsak izan ziren.

Kartel batzuk talde handitan egin ziren eta besteak, berriz, talde txikitan. Bukatzeko, apaindu egin genituen errotuladoreak, tenperak eta gometsak erabiliz.

Musika

Mikel Laboa Jose Luis Zumetaren laguna denez, gelara haren CDak ekarri genituen (batzuk irakasleok eta beste bat ikasle batek).

CDen azalak aztertzen aritu ondoren batzuk Zumetaren egindakoak zirela konturatu ginen.

Saio batzuetan abestiak entzun genituen, eta, gehien gustatu zitzairen abestia Baga-Biga izan zenez, ikastea erabaki genuen. Eta ikasi ondoren keinuak jarri genizkion.

Plastika

Materiala: A3 orriak, kartulinak, barniza, akuarelak, tenperak, manley, plastidecor, jovicolor, koloretako folioak...

Hasieran Zumetari buruzko liburuak gelan egon ziren eta hurrek nahi zutenean erabiltzen zituzten. Egun batean liburuak denen artean ikusi genituen eta bakoitzak gustuko zuen koadroa aukeratu zuen. Irakasleak koloretazko fotokopiak egin eta plastifikatu egin zituen hurrek gelan bere kabuz e-

rabili ahal izateko. Orri horiek hainbat erataraz erabili genituen:

* Errazenetatik hasi ginen (marra horizontalak dituztenekin) eta hori errepikatzea eskatu genien. Batzuak oso osoki errepikatu zuten eta beste batzuak beren erara egin zuten koloreok erabiliz.

* Akuarelekin beste koadro bat koptatu genuen.

* Txuri-beltzean fotokopiatutako koadroa koloreztatu genuen manley margoak erabiliz.

* Bakoitzak aukeratutako koadroa berregin zuen aukeratutako materialarekin: manley, jovicolor, plastidecor...

* Beste koadro batzuk ere berregin zituzten, gehien gustatzen zitzaizkienak.

* Autorretratoak egin genituen plastidecor margoekin.

* Egindako koadro bakoitzari txartel bat jarri genion. Txartela ikasleek beraien idatzi zuten eta zera jartzen zuten: izenburua, egilea eta neurriak.


* Lana bukatutakoan haur bakoitzak bere koadroa barnizatu zuen.



Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagorekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektu irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak urria

Ikasleen IV. Biltzar Nazionala azaroaren 2an ospatuko da

Ikasle Abertzaleak-ek antolatuta Donostian ospatuko den biltzarraren aldarrikapen nagusia eskola euskalduntzeko ikasle alternatibaren beharraz ohartzea eta alternatiba hori egituratu, onartu eta aplikatzea da.

Azken urteotan euskal ikasleak ikastetxeak eta fakultateak hizkuntzaz eta edukiz euskalduntzeko lanean ari dira, eta bide horretan ikasle alternatiba egituratzea jotzen dute hurrengo jauzi bezala. Ikasle alternatiba hori bost puntutan laburbiltzen da:

1.- Lanbide Heziketan euskaraz ikasi eta bizitzeko eskubidea bermatuko duen euskalduntze plangintza nazionala eratu eta abiatzea.

2.- Unibertsitatean euskaraz ikasi eta bizitzeko eskubidea bermatuko duen euskalduntze plangintza nazionala eratu eta abiatzea.

3.- Euskalduna (euskaraduna) izateko eskubidearen bermea lortzeko euskara eskolara proposamena.

4.- Euskal Herriko edukietan hezteko eskubidea bermatzeko:

4.1. Irakaskuntza Ertainetarako euskal curriculumerantz abiatzeko oinarritzko proposamena.

4.2. Unibertsitateko euskal curriculumerantz abiatzeko oinarritzko proposamena.

5.- Hau guztia posible izan dadin, Euskal Herri osoa barne hartuko duen euskal hezkuntza sistema.

5.1. Euskal Herrian ikasteko eskubidea.

5.2. Euskal Herri osoa barne hartuko duen erabaki markoak sortzea.

Ikastetxeetako Informazio eta Komunikazio Teknologietako esperientziak ezagutarazi dira Donostiako Berritzegunearen jardunaldietan

Gipuzkoako Berritzeguneek Jardunaldi batzuk antolatu dituzte Ikastetxeetan Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilpen didaktikoari buruz. Donostiako Berritzeguneak antolatutakoak irailaren 14tik 20ra bitartean burutu dira eta antolatzaileen esanetan harrera oso ona izan dute. Aste osoan zehar bi ordu eta erdiko saio ugari egon dira eta guztietan Donostiako ikastetxeetako irakasleek beren ikastetxean egiten dutena azaldu diete hurbildutakoek. Ikastetxe horiek Altza Bigarren Hezkuntzako Institutua, Amara Berri Ikastetxea, Bidebieta Bigarren Hezkuntzako Institutua, Easo GBLH Institutua, Itsuen Baliabidetegia, M^a Auxiliadora Ikastetxea, Zuhazti Eskola Publikoa eta Lizardi Bigarren Hezkuntzako Institutua izan dira. Donostiatik kanpoko agerpen bakarra egon da; Gijoneko "Doña Jimena Institutoko WEB gunearen azalpena, hain zuzen ere.

Ikasgela barruan ikasleekin IKTak lantzen dituzten irakasleek egindako proiektuak azaldu dituzte. Irakasle horiek ez dira informatikariak, baizik eta informatika erabiltzen duten irakasleak, eta beraiek IKTak nola lantzen dituzten erakutsi dute.

Besteak beste, IKTak hainbat arlo-

tan nola erabiltzen dituzten agertu dute: teknologia arloan, atzerriko hizkuntzan, fisika eta kimikan, ingurugiro kimika zikloan, irakurketa-idazketan, Lehen Hezkuntzako proiektu metodologian, euskararen, hezkuntza berezian, eskola egunkari-aldizkarietan, matematikan, Lehen Hezkuntzako elkarlan proiektuetan...


Ikasturteari begira honelako elkarjartze jardunaldiak maiztasun batekin antolatzeko asmoarekin darraite, bai IKTen erabilpen didaktikoari buruz, oraindik esperientzia hurbil asko elkarjartzeko daudelako, eta baita beste gai batzuren inguruan ere, hala nola, hizkuntza prozesuak, aniztasunaren trataera hezitzailea eta abar.

Jardunaldi mota hauekin bertako eta gertuko ikastetxeetako esperientziak, lanak eta materialak ezagutarazi nahi dira.

Helburua xumea da, bainagustura daude lortutako lehen emaitzekin. Hurrengo jardunaldietarako irakasleak euren esperientziak azaltzera animatu nahi dituzte. Gainera, edukiak eta informazioa emateaz gain, Donostiako Berritzegunearen helburua irakasleen GUNE bilakatzea da.



Hilarriak biribilketak proiektua



Donostia Kultura eta San Telmo museoak "Hilarriak biribilketan proiektua" burutzen ari dira Kultura 2000 programaren barruan.

Kultura 2000 Europako Komunitatearen programa bat da eta kultur lankidetzaz sustatzen duten proiektuei diru laguntzak ematera bideratua dago. Programaren helburua Europako herrialdeen kultura eta historia ezagutzaraztea eta horretarako jendeari bitartekoak eskaintzea da. Ildo horretan, 1.023 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik 219 aukeratu zituen aditu taldeak, bi Euskal Herrikoak izanik: Bilboko Guggenheim Museokoa eta Donostiako San Telmokoak.

San Telmo Museoa aurkeztutako proiektua "Hilarriak biribilketan" izenokoa da eta lankide ditu Baionako Euskal Museoa eta Portugaleko Lamego Museoa. Helburuetako bat gai honen inguruko ezagutza eta ondarearen berri zabaltzea da, eta horretarako multimedia bitartekoak burutu dituzte: ikusentzunezko materiala, maleta didaktikoa eta **Ateak Zabalik Jarduerak**.

Horrela, jarduera horiek urriaren 15etik azaroaren 15era bitartean izango dira eta egitarau zabalera prestatu dute.

- **Urriak 20-21:** familientzako seriografia tailerra.

- **Urriak 21:** Elorrioko Argiñetako nekropolisera bidaia.

- **Urriak 22:** "Heriotzaren itzalaren aurrean, bizitza argitzen da" mintegia. **hik** hasirekin batera antolatutako mintegi hau museoetako teknikarientzat izango da. Patxi Izagirre psikoterapeuta, zainketa palatiiboetan espezialista eta Donostiako Ekintza ikastolako psikologoak emango du mintegia.

- **Urriak 23: hitzaldia.** "¿Por qué ocultamos la muerte? Ante la sombra de la muerte, la vida se ilumina". San Telmo Museoa izango da arratsaldeko 7:30ean.

Eguna zehazteke duten beste hainbat jarduerara ere burutuko dira urriaren 15etik azaroaren 15era bitartean: adituen arteko mahai ingurua, Baionako Euskal Museora eta Itsasoko Cimètières paysagers-eta bidaia, Koldo Ameztoty ipuin kontalaria, olerki emanaldia, hilerrien inguruko erakusketa San Telmo Museoa, Euskal Herriko eta Portugaleko lau eskoletako haurrek hilarrien inguruan egindako lanen erakusketa eta maleta didaktikoaren aurkezpena.

Informazio gehiagorako:

San Telmo Museoa
Zuloaga plaza, 1
Tel.: 943 42 49 70
Faxa: 943 43 06 93
Mugikorra: 699 492 085
E-posta:
cultura_2000@donostia.org

Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketa iritsi da

Euskal Kantuzaleen Elkarteak **Musika Irakasle Euskaldunen II. Topaketa** antolatu du. **Urriaren 26an**, ostirala, ospatuko da **Donostiako Herri Ametsa ikastolan**. Baliabide didaktikoak izango dira topaketa honetako ardatz eta zenbait musika irakasle gelan egiten dutenaren berri emango dute. Agerpenak, beraz, guztiz praktikoak izango dira. Honako egitaraua prestatu dute:

9:00 Harrera

9:15 Taldeen eraketa

9:30 **A taldean** Antton Jauregi, Urrietako Egape ikastolako Lehen Hezkuntzako Musika irakaslea. "*Pentagrama-enea sorkuntza*".

B taldean Ana Etxeberria, Burlatako Askatasuna institutuko Musika irakaslea. "*Diaporama*".

10:45 Atsedena

11:15 **A taldean** Itziar Zamora, Irungo Txingudi ikastolako Musika irakaslea. "*ehop stop! musikadoc*".

B taldean Mixel Etxekopar, Zuberoako eskola publikoetako Euskara irakaslea. "*Atsotitzak nola bihurtu kantua*".

12:30 Nora Uribe-Etxeberria, Irunberri ikastolako zuzendaria. "*Haur kantari txapelketaren erabilpen pedagogikoa*".

12:45 Lea-Artibaiko ikastetxe publikoko Pedagogia Taldea. "*Soka-salto kantak*" CDA.

13:15 Otordua eta solasaldia ikastolan bertan.

15:00 Goizeko emanaldi berak, baina taldez aldatuta.

A taldean Ana Etxeberria

B taldean Antton Jauregi

16:30 **A taldean** Mixel Etxekopar

B taldean Itziar Zamora

18:00 Amaiera

Informazio gehiagorako:

Euskal Kantuzaleen Elkarteak
Tel.: 943 49 38 42
Mugikorra: 656 70 84 46
E-posta: kantuzale@euskalnet.net

Argitalpenak



Hezkuntza zentroen zuzendaritza

Pello Aramendi- Karmele Bujan
EHUko Argitalpen Zerbitzua

Donostiako Pedagogia Fakultatean izenburu bera zuten jardunaldiak burutu ziren 2000ko abenduaren 11 eta 12an. Ikastetxe eta erakundeetan aritzen diren zuzendarien eta ardurdunen kezak, arazoak, oztopoak, etorkizuneko perspektibak eta ikuspegiak izan ziren aztergai, eta horiek biltzen dira.



Zure etxea, zure planeta

Joseba Martinez
Eusko Jaurlaritza

Ingurugimen hezkuntzarako koaderno da eta lagungarria izan liteke gurasoak seme-alaben ingurugimen hezkuntzan duten eginkizun garrantzitsuaz jabe daitezen. Izan ere, lehen gaitasunak eta baliorik sakonena familia garatzen dira. Koadernoak etxetik abiatuta denon etorkizuna eraikitzeko proposamenak biltzen dira.



Euskara

Lehen Hezkuntza
Ibaizabal

Euskara izeneko materiala Lehen Hezkuntzako ziklo osoan erabiltzeko da, hau da, 1. eta 2. mailetan. *Kometa Ibiltaria* proiektuko material kurrikularra osatzen dute. Maila bakoitzean honako materiala aurki daiteke: ikaslearen liburua, bi koaderno (jolas koaderno eta idazketa koaderno), disko konpaktua eta irakaslearentzako gida.



Arrazismoa nire alabari azaldua

Tahar ben Jelloun
Txalaparta

Axuri beltza saileko liburu honetan etorkinen eta arrazismoaren gaia lantzen da. Hezkuntzaren garrantziaz jabeturik, haurrak eta gurasoak hezi nahi ditu egileak liburu honen bitartez. Alabaren galderei erantzuten die modu argi, sinple eta objektiboz. 8-14 urte bitartekoneska-mutilei zuzendutakoa izan arren, gurasoentzat ere benetan egokia da.



Musu lapurra

Xabier Etxaniz
Aizkorri

Mendi sorgindua bildumako liburu guztiak bezala, lehen irakurleentzat pentsatutako liburu da. Jokin Mitxelena-ren marrazki alai eta biziez ilustririk dago. Gaia, berriz, zoriontasuna da: pertsona batzuk oso zoriontsuak dira jaietan, gaueko suak ikustean. Pertsona batzuk oso zoriontsuak dira itsasoko uretan igeri egitean. Eta zu, noiz zara zoriontsua?



Harry Potter eta sekretuen ganbera

J. K. Rowling
Elkarlanean

Harry Potter saileko bigarren liburu honetan Harryren abentura gehiago kontatzen dira. Azti ausart hau, Hogwateko Azti eta Sorgin Eskolan lehenengo ikasturtea bukatu ondoren, bere osaba-izeba gogaikarrien etxean dago, bigarren ikasturtea noiz hasiko zain. Bigarren urtea ere iazkoa bezain mugitua, arriskuz betea eta zirrargarria izango da.

euskal eskola

Euskal Eskolari zuzendutako atal berri honetan atzera begira jarriko gara. Euskal Herriko irakaskuntzaren hainbat alderdi ezagutzeko parada izanen dugu: maiusu-maistrak, auzo eskolak, landa eskolak, Lanbide Heziketako ikastetxeak, koloniak, testu libururak, metodologia, irakasle eskolak eta beste hainbat eta hainbat kontu. Hilero-hilero geure iraganari hurbilduko gatzaizkio atal berri honetan.

1923ko andere oen lan-kontratua

Espainiako eskola bateko Hezkuntza Kontseiluak andere o bati ordorengo betebeharrak ipini zizkion zortzi hilabetez eskolak emateko. Lanaren truke, eta betebeharrak hauek zintzo betetzearen truke, 75 pezetako ordainsaria zuen hileko.

Lan-kontratuak honela dio:

Andereñoak honakoa adosten du:

1- Ezezkontzea. Andereñoa ezkontzen bada, lan-kontratu hau berez eta besterik gabe indargabetua geratuko da.

2- Gizonezkoekin ez ibiltzea.

3- Etxean egotea arratsaldeko 8:00ak eta goizeko 6:00ak bitartean.

4- Hiriko izozki dendetan ez ibiltzea.

5- Hiritik ez alde egitea inolara ere, Ordezkarien Kontseiluko lehendakariaren baimenik gabe.

6- Zigarrorik ez erretzea. Andereñoa erretzen ari dela aurkituko balute, lan-kontratu hau berez eta besterik gabe geratuko litzateke indargabetua.

7- Garagardorik, whiskyrik edo ardorik ez edatea. Andereñoa garagar-

doa, whisky edo ardoa edaten ari dela aurkituko balute, lan-kontratu hau berez eta besterik gabe geratuko litzateke indargabetua.

8- Aita edo anaia ez den gizonen bategin autoz ez bidaiatzea.

9- Kolore biziko arroparik ez janztea.

10- Ilea ez tindatzea.

11- Gutxienez bi azpigona erabiltzea.

12- Orkatiletatik gora bost zentimetrora baino gehiagora gelditzen den jantzirik ez erabiltzea.

13- Ikasgela garbi edukitzea:

a) Erratza pasa egunean behin gutxienez.

b) Ur beroz zorua garbitu astean behin gutxienez.


c) Arbela garbitu egunean behin gutxienez.

d) Sua piztu 7:00etan, haurrak 8:00etan etortzen direnerako ikasgela berotu dadin.

14- Aurpegiko hautsik ez erabiltzea, ez makillatzea eta ezpainak ez margotzea.



liburu
magikoak



ELKARLANEAN